

elkar

UDA 2026
84. ZENBAKIA

www.elkar.eus



ZORI ONAK! 50 urte

Fermin
Calbeton

+

JAVIER LERÍN

CÍRCULO DE CENIZA, UN TREPIDANTE THRILLER INCENDIA NAVARRA

MANEL LOUREIRO

ANTES DE QUE TODO CAMBIE, UN CÓCTEL DE VENGANZA, ACCIÓN, ESPIONAJE, GEOPOLÍTICA Y DOLOR

IZEN PROPIOAK

OLATZ MITXELENA · MARKEL SANCHEZ · IONE GOROSTARZU ·
GORKA BEREZIARTUA · LUIS GARDE · ASEL LUZARRAGA · ABEL
AMUTXATEGI · JON SARASUA · IKER ELORTZA · LAJA · IRATI JIMENEZ ·
ANTTON OLARIAGA · MARI JOSE OLAZIREGI · ALBERTO MURO · GASTON



IRRIA

Etxeko txikienen artean irakurzaletasuna, sormena eta ahozkotasuna sustatzeko

ipuinak, komikiak, zientziako infografiak, denbora-pasak, jolasak, eskulanak




URTEAN 49 euro!

Egin IRRIAREN harpidetza, eta baliatu gure eskaintza berezia: 10 €-ko bonoa Elkar dendetan erabiltzeko

NOLA EGIN HARPIDETZA?

- Telefonoz: (0034) 943 30 43 32 zenbakira deituz
- harpidetza@irrienlagunak.eus helbidera idatziz
- www.irria.eus/harpidetza-n izena emanaz


www.irria.eus-en topatuko dituzu IRRIAREN edukiak eta euskarriak!



berria **ekar** **Katxi**porreta

IRRIEN  **LAGUNAK**





Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar

flickr elkartaldea

elkar_taldea

elkarTaldea

postdata.elkar.eus

elkar 
www.elkar.eus

elkar
liburu-
dendak

ALGORTA (GETXO)

Tellebe 11
94 491 66 16

ARRASATE
Erdikokale 14
943 79 78 29

BAIONA

Gouverneurs 9
559 59 35 14

BARAKALDO
Merindad Uribe 14
944 37 22 76

BASAURI

Dr. Jose Garai 11
94 426 13 84

BERGARA
Ibargarai 7
943 76 40 50

BILBO

Licenciado Poza 14
94 443 47 08

Zamudioko
ataria Zazpikale
94 416 14 50

Iparagirre 26

94 424 02 28

DONOSTIA

Fermin Calbeton 21
943 42 00 80

Bergara 6

943 42 63 50

GASTEIZ

San Prudencio 7
945 14 45 01

Apraiztarrak 1

Campus
945 14 16 70

HERNANI

Kale Nagusia 30
943 55 15 37

IRUN

Colon pasealekua 8
943 63 17 26

IRUÑEA

Comedias 14
948 22 41 67

Leire 9

948 17 55 38

TOLOSA

Arostegieta z/g
943 67 35 33

Vacaciones
Santillana

Kairo
JDA



HEMEN DUZU
GURE OPARIA:

MindED



vacacionessantillana.es



1976a zen, Franco hil berri eta Euskal Herria bor-bor, askatasun haizeekin batera, euskal kulturgileak (musikariak, idazleak, antzezleak...) sortzeko eta sortutakoa gizarteratzeko gogoz eta ilusioz, euskararen aldeko mugimendua indar betez ikastolak zabaltzen, euskalduntze-alfabetatzea herriz herri antolatzen, "euskal kazetaritzaren urtea izendatu" zuten euskal komunikabideek... Dena egiteko zegoela esaten dute garai horretan lanean aritu zirenek eta giro horretan denak zeuden egiteko prest, proiektuak martxan jarri eta Euskal Herria eraikitzeko gogoz eta ilusioz. Euskarari eta euskal kulturari ikusgarritasuna emateko aukera zuten eta horri ekin zioten, bakoitzak bere eremutik, bakoitzak ahal zuen lekutik.

Testuinguru horretan, Joseba Jakak, Goio, Jon eta Xanti anaiak bidelagun zituela (gerora elkartuko zitzaizkien Joxemari eta Inaki Sors zein Jose Inazio Lizarraga) Donostian euskal kulturari zentraltasuna emango zion liburu-denda zabaltzeko erabakia hartu zuen. Ipar Euskal

Herrian egindako urteetan, Zabal liburu-dendaren sorreran hartu zuen parte, eta bertako kudeatzaile izana zen, eta aurretik ere ezaguna zen etxetxe liburuak saltzen egindako ibilbideagatik. Beraz, bazuen eskarmentua. Horrela bada, euskara erakusleihora harrotasunez eramateko helburuarekin, euskal liburuari eta diskoari leku duina egiteko helburuarekin sortu zuten liburu-denda hura. Euskal sortzaileei keinu eginez, bertsolari donostiar baten izena hartu zuen dendan, Bilintx.

Fermin Kalbetonen kokatu zen lehen liburu-denda hura, egungo **elkar** dagoen lekutik gertu. 1976ko abuztuaren 14an zabaldu zen liburu-denda, eta garai hartan bere oihartzuna ere izan zuen, Herri Irratiak zuzenean eman baitzuen inaugurazio ekitaldia. Hori bera bada garaiko giroaren nahiko adierazgarri. Euskal liburu modernoak klandestinitatetik atera eta erakusleihora eramateko urratsa zen hura, euskaraz ere sormena bazela erakusteko aukera, euskal kulturari nolabaiteko "normaltasuna" emateko bidea.

Lehen liburu-denda haren atzetik Donostian bertan bigarren Bilintx liburu-denda ireki zen handik urte batzuetara, 1982an, Esterlines kalean. Eta horretara, batean euskal gaia biltzen zen bitartean, bestean gainerako liburu guztiei egiten zitzaien lekua. 1994an salto handi bat eman zen, bi liburu-dendak batera bildu ziren, megadenda kontzeptua hartuta, euskal eta erdal gaia leku berean eta horrekin batera musika, papergintza, joko didaktikoak eta abar bilduko zituen denda handiagoa eratu zen, gaur egun Fermin Kalbetoneko **elkar** dena.

Bilintx esperientziatik abiatuta, 80ko hamarkadan, euskal liburuari ikusgarritasun handiagoa Euskal Herri osoan emateko asmoz, hiriburutik kanpora beste liburu-denda batzuk sortu ziren (Bergaran, Irunen, Tolosan) eta beste hiriburutan ere bai (Bilbon, Iruñean), beti ere euskal liburuak behar zuen lekua ez zuela ikusi zen herri eta hirietan. Horrekin batera, **elkar** Taldeak segida eman die hainbat hiritan eta herritan ixteko as-

EVIE WOODS

La misteriosa panadería de la Rue de Paris

es una historia sobre segundas oportunidades, pero también sobre sueños y esperanzas, en la que el aroma tentador del chocolate se entremezcla con el embriagador perfume del amor en el más mágico de los escenarios.

HarperCollins

150 URTE
BILINTX

1876 · 1976 · 2026

Fermin Calbeton

motan ziren zenbait liburu-dendari: Ramos Donostian, Lete Hernanin...

Horrela, iritsi da **elkar** Bilintx sortu zeneko 50. urteurrenera, Euskal Herri zabalean hedatutako 18 liburu-dendako sarea izatera, beti ere hasierako helburuak ahaztu gabe: euskarak eta euskal kulturak leku nabarmena izatea eta haien ikusgarritasuna ziurtatzea. Euskal liburuak eta euskal kulturak oro har oraindik ere ikusgarritasun arazoak ditu, inguruko kultura handien ondoan lekua egitea ez baita berez lortzen.

Garaiak asko aldatu dira ordutik eta **elkar** ere ez da geldirik egon, beti gizartearen behar eta errealitateetara euskara eta euskal kultura eramateko prest. Horrela iritsi ziren **elkar.eus** salmenta plataforma, dendetako hainbat zerbitzu eta baita komunikazio digitalean presentzia.

Aurrera begira ere zaku bete proiektu eta eronka daukate **elkar** liburu-dendek. Globalizazioak eta inguruko kultura handien indarrak, aldaketa eta eguneraketa beharrak azeleratzen darraite eta horretan ari da taldea. Etxerako zerbitzuak, mugikortasunak, dendan funtzioak, momentuko informazioa eta produktura iristeko bide ezberdinek gero eta indar handiagoa hartu dute, eta horrek herrietako komertzioa kolokan jarri du, baita herri askotako liburu-dendak ere. Egoera horretan, eronka handia du **elkar**-ek bere eginkizunari eusteko eta liburu-denda sarea berritu, modernizatu eta egungo beharretara egokitzen. Liburu-dendak ere egokitu egin behar du, eskaintza fisikoa eta digitala, zerbitzu fisikoa eta digitala uztartuta, garaiko bezeroak dituen beharrei ahalik eta egokien erantzuteko.

Berrogeita hamar urteko ibilbideak emandako esperientziak aukera ematen dio **elkar** Talderi etorkizunari begiratzeko eta egungo beharretara egokitutako liburu-denda egituratzeko. Horretan ari da, hurrengo berrogeita hamar urtetarako oinarriak ezartzen.

JOANMARI LARRARTE

Elkar Fundazioko lehendakaria



AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: GARAZI IRIGOTYEN - JUANITXO EGANEA ESTUDIOA

DE BILINTX A ELKAR, MEDIO SIGLO DE TRABAJO POR LA CULTURA EN EUSKARA

Aquel año 1976, con Franco recién enterrado y Euskal Herria en ebullición, vio nacer numerosos proyectos pensados para construir país, recuperar la lengua y revitalizar la cultura vasca. En aquel ilusionante contexto, Joseba Jaka y sus hermanos Goio, Jon y Xanti (a los que luego se sumarían Joxemari e Iñaki Sors y Jose Inazio Lizarraga) abrieron una librería pensada para dar visibilidad a la cultura en euskara en Donostia.

Así, con el afán de llevar el euskera al escaparate y otorgar un lugar digno al libro y disco vasco, surgió una librería que tomó el nombre del más célebre bertsolari donostiarra, Indalecio Bizkarrondo, *Bilintx*. El año 1982 se abrió una segunda librería Bilintx, en la calle Esterlines, ambas refundidas en los años 90



en una única megadenda, la actual **elkar** de Fermin Calbeton, con espacio para libros, música, papelería y juegos didácticos.

De la experiencia de Bilintx surgieron otras librerías en Gipuzkoa (Bergara, Irun, Tolosa) y otras capitales (Bilbo, Iruñea), siempre en lugares donde no existiera previamente ninguna librería que priorizara el libro en euskara. Además, el grupo **elkar** incorporó al proyecto otras librerías que estaban a punto de cerrar.

Cincuenta años después de su nacimiento, Bilintx forma parte de la red de 18 librerías de **elkar**, repartidas por todo Euskal Herria. Los tiempos han cambiado, pero no ha variado ni un ápice el objetivo fundacional: garantizar al euskara y la cultura vasca un lugar destacado y visibilidad social.

SUMÉRGETE
EN EL VERANO
con un buen libro

DESTINO





ALBERTO MURO
Fotógrafo y escritor

Proposamena


¡ARRIBA LAS RAMAS!!

Los domingos por la mañana gusto de deambular por casa prestando oídos a *El bosque habitado*, un programa radiofónico donde se da voz a los árboles y a toda la comunidad que habita los bosques. Aquí escuché por primera vez el nombre de **Ignacio Abella**, maestro arbóreo e inspirador de la génesis de este maravilloso libro que hoy me gustaría recomendar.

Desde su portada cálida y otoñal, *La poesía de los árboles* invita al lector a sumergirse en un paraíso ilustrado, apto para todos los públicos y un lujo para las mentes conmovidas y comprometidas con la protección del medio ambiente. Esta pequeña

joya literaria guarda entre sus páginas las emociones generadas por los árboles en las almas de 75 grandes poetas, recopiladas durante años de lectura por el propio Ignacio Abella. Lo descubrí el pasado mes de noviembre. Fiel a mi cita anual con el arte sobre papel, atravesé las puertas que dan acceso al palacio Euskalduna de Bilbao para explorar las últimas tendencias en gráfica contemporánea. Mi primera parada es siempre obligatoria para descubrir las nuevas propuestas que ofrece el stand dedicado a los libros ilustrados. Así abrí por primera vez las hojas sedantes de *La poesía de*

los árboles, un bosque de acuarelas pincelado de manera magistral por la mano de la ilustradora **Leticia Ruifernández**, acompañadas por una antología de versos nacidos de las plumas más ilustres de la literatura. *La poesía de los árboles* no es un libro para darse de un atracón. Es más bien una obra de arte que merece ser degustada acorde a la sensibilidad que atesora entre sus páginas, descubriendo pausadamente cada poesía y cada ilustración. Un libro para enamorarse de nuestra naturaleza y muy especialmente de los bosques, que suelen ser los grandes olvidados.



LA POESÍA DE LOS ÁRBOLES
Varios autores
NÓRDICA

Profila EHUN METRO

MENDE ERDI GUREKIN



MARI JOSE OLAZIREGI ALUSTIZA
EHUko irakaslea

50 urte. Horiek dira aurtien **Ramon Saizarbitoriaren** *100 metro* eleberririk betetzen dituenak (Kriselu, 1976). Tartean, berrargitalpen ugari, film bat (**Alfonso Ungria**, 1985), lau itzulpen eta euskal literatur kritikaren laudorioak. Era guztietako hausnarketak eragin ditu nobelak gurean eta bere errealismo, esperimentalismo, edo polifoniaz luze idatzi da. Esanenez *Ehun metro*ekin hazi garelara eta kritikariok oraindik bere kontamolde modernoan harrapatuta jarraitzen badugu ere, eleberririk duen indarrak erakartzen nau gehien. Horregatik irakurtzen dut urtero sareetan murgilduta bizi diren nire ikasleekin,

gustura aritzen naiz eurekin eztabaidan. Collage moderno bat da, ados, baina gaurkotasan erabateko galderak luzatzen dizkigun eleberririk interesgarria ere bai.

Ehun metro aurkitzen ditugu jada gerora Saizarbitoriaren nobelagintza hauspotuko duten ardatzak. Hor dago, lehenik, Donostia bera, eszenatoki huts baina gehiago dena: *Ehun metro* zerbait bada, Donostia euskal eleberririk modernoaren hiri bihurtu duen testua baita. 1974ko Donostia hura, gainera, faxistek jazarritako hirigunea da, euskal identitate kolektiboa ukatzen duten fraide eta agintariz bete. Baina, batez ere, Saizarbitoriaren elebe-

rrigintza *handi* egiten duen begirada gizatiarrekin egiten dugu topo *100 metro*n, gudari izatera deitu zuten protagonista bakar-bakarririk eta beldurrez hilko baita. Alferrikako odol-isurketaren begirale bihurtzen gaitu narratzaileak eta **Preverten** hitzek, *elle tourne la terre...*, gerora handituz joango zen amesgaiztoa ere iragartzen digute. Finean, eleberririk ahots eta hizkuntza aniztasunak horixe salatuko du, izugarrikeria horren aurrean gizar-teak duen axolagabekeria. Heroirik gabeko istorioa, trebetasun formal harrigarri kontatua.

50 urte ez dira asko klasiko honentzat, inondik ere.



EHUN METRO
Ramon Saizarbitoria
EREIN



IRATI JIMENEZ IDAZLEA

BARREN-BARRENEAN

BIZIRIK DAUDEN IRAKURLEAK, LITERATURA BIZIKO BADA

Ez dakit zuei inoiz gertatu zaizuen. Niri sarriegi. Hartzen dut liburu bat, hasten naiz irakurtzen eta idazleak bere lana ondo egin badu, banoa liburuaren ahotsa entzuten eta kontatzen duena ikusten, baina, halako batean, konturatzen naiz bakarrik sentitzen naizela. Edo, zehatzago esanda, ez naiz liburuaren konpainian sentitzen. Hor norbait dago, eta hitz egiten ari da, baina bere buruarekin ari da, agian, edo, agian, telefono dei baten beste aldean

egon beharrean, harien interferentziak egoten ziren garaian bezala ari naiz, niretzako ez zen dei bat entzuten. Sentsazio desatsegina da eta halakoetan, nik neuk, telefonoa eskegi egiten dut eta beste liburu batekin probatu.

Baina aitortuko dizuet, lagunok, hipotesi terrible bat daukadala egungo euskal literaturari buruz. Ez gara jada irakurleak galtzen ari den literatura bat. Irakurleak

abandonatu dituen literatura bat garelako. Bere buruari irakurleengan ez pentsatzeko baimen etsigarria eman dion literatura bat. Literaturari buruz hain gaizki pentsatzeko ohitura dugunez, beharbada sinetsi egin dugu idazleak zerbait berritzailea idatzi nahi badu, edo orjinala, edo abangoardiakoa, ezin duela inorenengan pentsatu. Edo pentsatu dugu libertate indibiduala edo libertate artistikoa, nahi bada, askatasun lokabeak direla, eta irakurleengan pentsatzeak mugatu egiten dituela.

Hala bada, ez nago ados.

Askatasunari buruzko eztabaida filosofikoetan ez naiz hasiko baina gauza bat da idazleak nahi duena egin dezakeela -hori esan beharrik ere ez dago eta ez dut uste literatura honetan inork ezer idaztera behartzen duenik- eta beste gauza bat da zer egin duen libertate horrekin. Eta irakurleen interesa bilatuz idaztea edo irakurleak gurekin bizirik mantendu nahi izatea edo idazten dugunak irakurleengan duen edo izan dezakeen eragina kontutan hartzea ez dago inolaz ere libertatearekin kontrajarrita. Are gutxiago kalitatearekin.

Badira liburu batzuk etengabe irakurleekin hizketan ari direnak. Hemen gaudenok. Nirekin. Zuekin. **Gerald Brenan**ek bere *Historia de la literatura del pueblo español* miresgarrian dioen moduan, **Cervantes**ek bere irakurleekin kolaborazioan idatzi zuen *On Kixote*. Eta kolaborazio horri esker okurritu zitzaion, adibidez, bere liburuaren lehen partean oinarritutako beste liburu bat hartzea, eta bigarren partean liburu hori erabiltzea literatura txarraren adibide gisa. Bigarren partean lehenaren ariketa praktikoa bihurtuz eta literaturaren historiako ariketa metaliterariok apasionanteena osatuz.

Irakurleekin harreman berri bat bilatzen zuelako otu zitzaizkion **Julio Cortazar**ri *Rayuelaren* egitura -irakurlea ibilbide desberdinak egitera behartzen duena- eta *Rayuelaren* hizkuntza iraultzailea, irakurleen nazio bat suspertu edo akaso sortu egin zuena. Bere alabentzako fantasiako liburu bat idatzi nahi eta ezin zuelako okurritu zitzaion **William Goldman** idazleari existitzen ez zen liburu baten bertsio bat egitea, liburu horren parte onak apailatuz eta horrela sortu zuen klasiko garaikide zoragarri bat, etengabe gurekin hitz egiten duena, *La princesa prometida*. Eta, geurera etorrita, irakurleak etengabe interplatatuz, eta liburu bat pelikula bat bezala kontatuz lortu du **Katixa Agirre**rek mekanismo garden, trebe, *jenial* baten bidez kontakizun dinamiko eta apasionante bat egitea bere azken nobelan (*Barne Zerbitzuak*, Elkar, 2025)

Irakurleekin elkarlanean literatura ona egin daiteke, literatura bikaina egin daiteke, literatura *jeniala* egin daiteke. Ez gaitezen, beraz, errenditu. Helburua ez baita erraza baina idazle batek irakurle bat bizirik senti arazten duenean, literatura osoak irabazten du. Bizirik dauden irakurleak denonak direlako eta bizi nahi duen literatura batek denak behar dituelako.



ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

GORKA BEREZIARTUA

Garondan eleberria argitaratu berri du Gorka Bereziartua kazetari ezagunak, euskal gatazkaz, baina baita belaunaldi baten erretratuaz ere modu diferentean hitz egiten digun lana.

Lehen eleberria duzu hau, nobela inizatikitzat ere har daitekeen lana.

Badu kutsu hori eta nahi nuen edukitzea: istorioak zini-morik gabeko begirada eskatzen zidan, narrazio inizatikoek izaten duten gardentasun hori. Baina ez nuke esango genero horretako istorio tipikoa denik ere. Heldu-bizitzan ondo sartuta daudenean hasi dira protagonistak aurretik gertatu zaiena puskaka berrosatzen, apurtuta bezala baitago haien memoria.

Belaunaldi baten erretratu gisa ere irakur daiteke, 2000ko hamarkadan gazte izatea tokatu zitzaizen haiena.

Beharbada *millennial*-ak direlako dauzkate euren oroitzapenekin hainbeste problema: iruditzen zait Euskal Herrian gazte belaunaldi horri buruzko memoria-ariketa oso sendorik ez dela egin, eta agian ez dela egin nahi. Hori da, hain zuzen, pertsonaia horiengan interesatzen zaidan gauzetako bat.

Edukiari buruz, esango dizute: "Euskal gatazkari buruzko beste liburu bat!"


Asko jorratu da euskal gatazka, bai. Nolanahi ere, irakurle gisa ez zait asko interesatzen nobela baten gaia zein den, oinarri horretatik abiatuta liburuak nora naraman baizik. Gainera, uste dut gatazkari buruzko liburua baino, gatazkaren narratibei buruz zerbait iradoki nahi duen nobela dela *Garondan*. Meta-narrazio moduko bat dela, alegia.

On-gaizto dikotomiatik urrun dago.

Hasieratik argi neukan ez nituela nire pertsonaiak epaitu nahi; ezta haien alde ilun edo zalantza-koak ezkatatu nahi ere. Laburbiltzeko, ez nituela pertsonaia lauak sortu nahi.

Formari buruz: narrazio molde konbentzionalak eta ezohikoak tartekatu dituzu.

Berez istorio guztia lehen pertsonako narratzaile batekin kontatzen hasi nintzen, baina ez nengoen eroso. Eta halako batean, narratzaileari modu lehor samarrean hitz egiten dion beste ahots hori aurkitu nuen. Egia esan, oraindik ez dakit zer den ere. *Glitch* narratibo bat bezala agertu zitzaidan.



GARONDAN
Gorka Bereziartua
ALBERDANIA

Eta nobela argitaratuta, orain bai, azkenik idazle bilakatu zara.

Lehenago ere saiatu izan nintzen titulu hori eskuratzen, baina idazten hasitako liburuak abandonatzen nituen. *Garondan* berriz, ez zitzaidan burutik ateratzen. Nobela bukatzea zen bide bakarra.

ARITZ GALARRAGA
Editorea

Elkarrizketa osoa:
https://labur.eus/Gorka_Bereziartua



**ODOL
ARRASTOAK
ELUR GAINEAN**
Xabier Lasa
ELKAR

bide natural horren kudeaketak garrantzi handia hartzen du. Zergatik aukeratu duzu gai hori? Gure mundua krisi hidrikoan dago. Biziaren osagai ezinbestekoa izanik, urak ekonomia, geopolitika, eta tokiko politika zeharkatzen ditu goitik behera, gai estrategikoa da eta Nafarroa ez dago arazotik landa. Izugarria da zenbat interes eta amarru mugitzen diren uraren inguruan, eta horixe azaldu nahi izan dut fikzio literarioa erabiliz.

Pertsonaia batzuk (Sara Zaldaiz protagonista, batez ere) bi nobeletan agertzen dira. Egongo da hirugarren nobelarik? Sara eta ura izango dira protagonistak horietan ere?

Bistan da bigarren eleberri honekin gaia ez dela agortu. Bai, gustatuko litzaidake hirugarren bat idaztea bide beretik. Eta, indartsu sentitzen banaiz, laugarren bat ere bai, zergatik ez?

Esperientzia hartzen joan zaren heinean, politikan ibili den batek nola ikusten du euskarazko literaturaren mundua?

Mundu horrek ere badu zer kontatua. Orain arte ikusi dudana gatazka, fauna ikusgarria mugitzen da ekosistema txiki bezain bizi honetan: idazleak, kritikariak, editoreak, saltzaileak... nobela beltz interesgarriak idatz litezke euskal literaturaren inguruan, doike.

Lehenengo galdera berez dator: noraino lagundu dizu zure esperientzia politikoak nobelak osatzeko orduan?

Nireak istorio beltzak dira, lohiak, Nafarroako egoera politikoaren mihise gainean marraztuak, eta errealismoz josiak. Kargu publikoaren bizikizun pertsonalak eta irudimen literarioa nahasten dira bertan.

Lehen nobelaren trama uraren banaketaren inguruan biltzen zen; bigarren honetan ere balia-

JON ALONSO
Idazlea

XABI LASA


Literaturaren ur sakonetan murgildu baino lehen, Xabi Lasa Gorraizek (Berriozar, 1967) esperientzia luzea eduki du Nafarroako politikaren ur ez beti argietan. Ura ez baita beti gardena (Elkar, 2023) izan zen haren lehen liburua, eta orain bigarren nobela batekin dator: *Odol arrastoak elur gainean*. Biak Nafarroako politikaren ur uherretan gertatzen diren thriller-ak dira.

JAVIER LERÍN

El círculo de ceniza ha llegado a las librerías con la intención, o el deseo, de ser devorado por quien se anime a leer sus páginas. Es la segunda novela de Javier Lerín, un escritor adicto a los thrillers. Y a las buenas historias. El punto de partida es un incendio en la localidad navarra de Zizur. A partir de ahí logra vertebrar un relato embaucador y con ritmo trepidante en el que conviven saltos en el tiempo, giros imprevisibles e hilos argumentales tejidos con el acierto de quien sabe lo que hace, y disfruta haciéndolo.



FOTOGRAFÍA: JAVIER LERÍN



EL CÍRCULO DE CENIZA
Javier Lerín
SUMA

Para mí no tendría sentido dedicarle un año a una novela que me aburre. Además, creo que eso, para bien o para mal, se termina trasladando a las páginas. Me lo paso fenomenal retorciendo la historia, desordenando las piezas, buscando el giro impredecible o la vuelta de tuerca que haga que la trama cobre otro significado. **Vuelve con una historia, que al igual que el an-**

“Lo primero en lo que pienso a la hora de ponerme delante del teclado es en divertirme”

terior libro, está tejida con saltos en el tiempo. ¿Qué le atrae de este tipo de estructura?

Es un elemento muy interesante para jugar con la dosificación de la información que le doy al lector. No es lo mismo darle las piezas del puzzle en orden cronológico, que soltarlas en el momento exacto. La intención es crear el mayor suspense posible y los ganchos necesarios para hacer que no pueda soltar la novela.

Es ingeniero en ciberseguridad y escribe thrillers. ¿Cómo convive con ambas actividades?

Las mantengo totalmente separadas, como una doble vida. Es algo parecido a lo que hace Spiderman cuando se pone su traje naranja. Por el día trabajo como ingeniero de ciberseguridad en una empresa y, por la noche, me visto de escritor para sumergirme en la escena que estoy creando en ese momento. Del trabajo de oficina desconecto enseguida, en cuanto cierro el ordenador. Pero de la novela que estoy escribiendo no lo hago nunca. Para mí es muy habitual estar haciendo otras cosas como tomando algo con amigos, viendo una película o paseando con mi perro y que, de repente y sin venir a cuento, se me ocurra un giro para darle la vuelta a la historia que estoy escribiendo.

Y también toca en una banda de punk rock...

Sí, empezamos siendo unos críos y todavía seguimos


haciendo ruido. Componer las canciones del grupo durante estos veinte años me ha servido de mucho a la hora de lanzarme a ser escritor. Primero, porque gracias a ello me di cuenta muy pronto de que lo que me apasionaba en la vida era contar historias que pudieran llegar a la gente. Y, después, también he aprendido recursos que he podido trasladar a mis libros. Hacer canciones no es tan diferente de escribir una novela.

¿Por qué thrillers? ¿Cree que podría escribir otro género?

Aunque me encanta leer cualquier tipo de género, todos los meses cae un buen thriller. Como lector, es lo que más disfruto. Creo que sería capaz de escribir otro género y no descarto hacerlo en un futuro lejano. Pero me encanta esa manera de atraparte que tiene el suspense. Como escritor, lo primero en lo que pienso a la hora de ponerme delante del teclado es en divertirme.

TERESA SALA
Periodista

La entrevista completa:
https://labur.eus/Javier_Lerin




El crimen perfecto también puede ser una obra de arte

El nuevo misterio de la reina del thriller
MARÍA ORUÑA
Más de 1.500.000 lectores



PLAZA JAMES



▼
SORBATZA
Markel Sanchez
ELKAR

MARKEL SANCHEZ

Zientzia fikziozko eleberrri desberdin bat da *Sorbatza*, Markel Sanchezen (Durango, 1991) lehenengo liburua, etorkizun harmonikoago batean sortzen diren ezinegonak kontatzen dituen eta atarian Harkaitz Canoren hitzaurrea dakarrena.

Utopiak eta, batez ere, distopiak modan daudden sasoi honetan, zurea ez da sailkapen horretan erraz kabitzen...

Mundu askoz hobe batean gertatzen da; beraz, gure ikuspuntutik utopia dela esango nuke. Kontua da zer gertatzen den utopia bertatik bertara bizi duzunean, zalantzak sortzen direnean, jendeak harago joan gura duenean, utopiak utopia izateari uzten dionean. Tentsio horretatik sortzen da *Sorbatza*.

Etorkizunean girotu arren, ez diezu batere errepertatu teknologiarri edo berritasunei. Non jarri nahi izan duzu azpimarra?

Interesgarria eta kitzikagarria iruditzen zitzaidan zapalkuntza nagusiak gainditu dituen zibilizazio baten kezka, desira eta eztabaidak imajinatzea, batez ere zein baldintza berri sortuko lirakeen politikan, artean eta harremanetan. Agertzen dira debate batzuk gure gaur egungo eztabaida batzuekin errimatzen dutenak, eta agertzen dira beste batzuk guretzat ia imajinaezinak. Belaunaldien arteko talkak ere oso presente daude, baina ez gaur egun bizi ditugun moduan.

Eleberrriaren eraikuntza ere esanguratsua da...

Bai, ikerketa-txosten baten modura dago idatzita. Hasiatik ikus daiteke heriotza batek ezinegon sortu duela, eta hori argitzeko egindako ikerketa baten emaitza daukagu aurrean, zenbait pertsonaren lekukotzak jasotzen dituen, ikerketatik harago doazen hainbat kontu kontatuko dizkigutenak.

Lehen liburua duzu, baina irakurtzean une oro nabari da literaturarekiko eta hizkuntzarekiko sentiberatasuna.

Betidanik irakurri izan dut asko, sarritan idatzi ere bai, baina beti gauza laburrak, narrazioak eta halakoak, eta lagun artean edo neuretzat gorde. Oraingoan, ordea, baneukan ideia multzo bat nobela bihurtzeko, eta hortik hasi nintzen *Sorbatza* osatzen. Idazkera zaintzen saiatu naiz prozesuan, edertasunaren bila une oro.

▼
TERESA LARREA
Kazetaria

ASEL LUZARRAGA

Putajainkotiarrak lanarekin, Esan gabe doa eta Zortzigarren hiria liburuetan hasitako bidaia biribiltzen da. Iraganeko oihartzunek eta gaurko erabakiek topo egiten dute. Hots, lehen bi liburuetan ereindako ideiak, zalantzak eta gatazkak fruitua ematen duten ueña da, Asel Luzarragaren ahots literariorik argiena eta zintzoena bilakatuz. Utopiak bilatzea proposatzen digu, eta Askayala proposamen bat da.

Azken lan honek Askagalaren trilogia itxi du. Nola sentitu zinen azken hitza idatzi zenuenean? 2009an hasi zen bidaia hau, Wallmapun, eta beste istorio batzuk harilkatu bitartean, trilogia hau hazi eta

hazi ibili zen. Buenos Aireseko giro militantean zein Mundaka eta Bermeo arteko osteratxo lasaietan, burura etortzen zitzaizkidan pertsonaiak, gorabeherak eta, batez ere, Askayala: zelan moldatuko zen honi aurre egiteko? Zorion moduko bat sentitu nuen.

Liburu hauetan zure nortasuna agerikoa da, baita zure idazle gogokoenetakoak ere. Nola lagundu dute askatasunaren ikuspegi hau sortzen?

Kasu gehienetan, senez pentsatutakoa berrestera etorri dira. **David Graeber** edo **Murray Boockchin** irakurri, eta maiz etortzen zitzaidan: hara, Askayala dago hemen! Beste askotan, Askayala moldatzeko osagaiak eman dizkirate; **Wilhelm Reich** eta **Casilda Rodríguez**, esaterako. Berretsi didate imajinatzeraz ausartu eta jolastu barik ez dagoela nora joan.

Ziklo hau itxita, Askagalaren atea behin betiko itxi duzula sentitzen duzu?

Ez, Simun Palsuk badauzka istorioak kontatzeko. Aurretik badakigu zer lurraldetan mugitzen garen. Jokozelaia marraztuta dago. Jokalariz beteko da, pixkanaka.

Zure ahots narratiboaren zintzotasuna nabarmendu behar duzu. Nolako izan da ahots horren bilakaera urte hauetan? Eta estilo literarioaren aldetik?

Gustuko estiloak irakurri ahala zerbait xurgatuz noa. Gero, istorio eta pertsonaia bakoitzak bere ahotsa eskatzen dit, eta funtsezko ueña da hori idazten hastean. Agusek erraz jarri dit bidea. Haren nortasun jostariari jarraitu diot gehien bat.



▼
PUTAJAINKOTIARRAK
Asel Luzarraga
TXALAPARTA

▼
DABID MARTINEZ
Informatikaria

Elkarrizketa osorik:
https://labur.eus/Asel_Luzarraga



“Una novela es una gran mentira, pero las mejores mentiras son aquellas que tienen elementos reales”

MANUEL LOUREIRO

FOTOGRAFÍA: JAVIER OCAÑA

Manel Loureiro (Pontevedra, 1975) saltó a la fama con *Apocalipsis Z*, que fue blog viral, primero, y luego novela de éxito. Maestro del thriller, autor de *best-sellers* como *El último pasajero* (2013) o *La ladrona de huesos* (2022) regresa ahora con *Antes de que todo cambie*, una historia que explora venganzas, acción, espionaje, geopolítica y dolores íntimos.

La novela arranca con un hecho trágico. ¿Qué le interesaba explorar desde ese inicio?

La muerte de un hijo es lo más perturbador y trágico que le puede acontecer a un ser humano, porque es antinatural. Ese hecho, sobre todo si es por culpa suya, como sospecha Sam, te coloca en uno de los puntos más bajos en los que puedas hallarte jamás. Estás dispuesto a hacer lo que sea por encontrar una salida. Aunque eso sea cometer un crimen que sacuda a Europa.


Samuel Hoyos es un personaje complejo y vulnerable, alejado del arquetipo del héroe. ¿Cómo fue su construcción?

Difícil, precisamente porque parte de una situación personal muy complicada. Y, además, Sam es un hom-

bre hermético, con muchas capas emocionales y un montón de conflictos no resueltos. Fue trabajoso, pero ha merecido la pena.

La trama evoluciona desde un conflicto personal hacia una conspiración internacional.

De lo local se aspira a lo universal. Sam vive inmerso en su propio drama y está dispuesto a meterse el cañón de una pistola en su boca para acabar con todo, cuando de repente se abre ante él la posibilidad de descubrir cosas esenciales de su pasado. En ese camino, las apuestas van siendo cada vez más altas y su impacto potencial cada vez más global, pero eso a Sam ya no le importa. Sucede de manera gradual y orgánica y cuando se quiere dar cuenta, ya es demasiado tarde...



ANTES DE QUE TODO CAMBIE

Manel Loureiro
PLANETA

¿Qué papel juegan los dilemas morales dentro de la historia?

Mucho, porque la diferencia entre el bien y el mal, cuando estás sumergido en un mundo de mentiras, medias verdades y falsedades interesadas, como es el universo del espionaje y los bajos fondos internacionales, se desdibuja con mucha facilidad. Y, sobre todo, la búsqueda de la redención y el perdón a uno mismo (el más difícil de todos) atraviesa toda la historia.

En la novela aparecen instituciones reales como los servicios de inteligencia. ¿Cómo se documentó para saber cómo funcionan realmente?

Tuve numerosas entrevistas con agentes y personal de campo que se encargan de la protección de Casa Real, de Moncloa o de las escoltas de varios presidentes autonómicos, así como con agentes y ex agentes del CNI y algunos del antiguo CESID, su antecesor. Una novela es una gran mentira, pero las mejores mentiras son aquellas que tienen muchos elementos reales... porque entonces se vuelven indistinguibles de la verdad.

¿Qué aporta Galicia a la atmósfera del thriller?

¡Muchísimo! Es el punto de partida perfecto, porque te ofrece no solo el escenario ideal (valles, bosques, lluvia, niebla, mar encrespado...) sino también el humano (esa personalidad gallega algo reservada, donde todo el mundo parece guardar algún secreto) y la fascinación que ejercen sus tradiciones y leyendas en el imaginario colectivo.

KAROLINA ALMAGIA
Periodista

La SOCIEDAD de los OBJETOS *extraordinarios*

**UNA SOCIEDAD SECRETA,
UN ATLAS IMPOSIBLE Y
UNA PERSECUCIÓN MORTAL**

Por el autor de:

MAEVA

HONDOAZ GALDE

Mikel Artolak galdetu eta Jon Sarasuak erantzun, bien artean osatu dute *Hondoaz galde* elkarrizketa-liburua, gizakiaz, izateaz eta haragokoaz gogoeta egiten duena. Jon Sarasuarekin hitz egin dugu liburuaz.

Irakurri ez duenarentzat, zer da "hondoa"?

Guk ez dugu eskatu jaiotzea, eta elementala da galde-tzea zer egiten dugun hemen, zergatik garen kontziente, zein den honen guztiaren esanahia. Historiako kultura eta tradizioek oso modu desberdinetara intuitu edo adierazi dute unibertsoak edo errealtateak baduela sakoneko taupada, zentzu, hondo, asmo edo norabide bat. Gero, hondo hori, kultura bakoitzak bere modura ulertu edo izendatu du.

Espiritualarekiko interesa berezkoa du gizakiak, ala gizarte baten barne-dinamiketan sortzen eta transmititzen da?

Gizakiak badu izaerazko irekidura bat existentziaz galdetzer, harago edo sakonago jotzera. Eta nahikoa argi dago irekidura hori berezkoa dugula, *homo sapiens sapiens*arena, garai eta leku guztietakoa. Jakina, izaki sozial eta kulturalak gara, ezinbestean, eta hizkuntza bezala edo beste gauza guztiak bezala, jardun espirituala ere tradizio edo ibai kultural handien bidez mamitzen da. Beraz, biak.

Gai horiek ez omen daude modan gure artean. Baina aldi berean halako *revival* bat datorrela

ere esaten zaigu...

Euskal Herrian bereziki une eta leku blokeatuan gaude gai honekiko. Oztopo moduan funtzionatzen duten faktore batzuk daude martxan. Dena dela, gizakiaren eta gizartearen dimentsio hori sakona da, eta ematen zaion erantzuna edozein izanik ere, gaia hor izango da gerora ere.

Erligioarekiko kezka eskuindarren ondareztat daukatenei zer esango zeniekete?

Aro eta leku batzuetako turbulenzia eta identifikazioetatik harago begiratzen jakin behar genuke. Existentiaren sakoneko iturri, taupada edo hondoa haurpenean bizitzeko hautua, edota horri uko egiteko hautua, biak izan litezke aukera adimentsuak. Ez du zirikusirik, ordea, analisi politikoarekin. Nire kasuan, munduan zehar gurutzatu zaizkidan iraultzailerik handienak erlijioa bizi zuten pertsonak izan dira. Alde batean edo bestean, galdegai unibertsalak dira.

XABIER MENDIGUREN
Editorea



HONDOAZ GALDE
Mikel Artola / Jon Sarasua
ELKAR



OLIBONDOAREN HERRIA
Markel Elortza
ELKAR

OLIBONDOAREN HERRIA

***Olibondoaren herria* idatzi du Markel Elortza irakasle gasteiztarrek, Palestinako gatazka ulertzeko hamar gako historiko eskaintzen dituen liburua, gaiari buruz euskaraz sorturiko lehena, estilo samurrez idatzia eta Maitane Azurmendiren ilustrazioez hornitua.**

Noiztik izan duzu palestinar herriarekiko jakinmina?

Gaztetatik izan dut oso presente palestinar herriaren borroka. Bigarren intifada nire nerabezaroan gertatu zen, eta horrek markatu egin ninduen. Gainera, Baskonia zalea naiz, eta garai hartan Euroligan urtero jokatzeko ziren Maccabiren aurkako partidak. Zale askorentzat ez zen kirola bakarrik: Palestinako okupazioaren aurkako sinbolo moduko bat ere bazen. Hortik hasi nintzen gatazka ulertzeko beharra sentitzen, eta urteekin interes hori sakontzen joan da.

Euskal jendartearen Palestinarekiko ardura nabari da, baina ezagutzarik ba al dago?

Ardura horrek erakusten du jendeak badakiela zerbait ez dagoela ondo. Baina askotan ezagutza sakonagoa falta da, eta horrek zaildu egiten du gertatzen ari dena ulertzea. Horregatik idatzi dut liburua: testuingurua emateko eta irakurleari tresnak eskaintzeko. Azken finean, ulermena da lehen pausoa iritzi kritikoa eraikitzeko.

Zer berezitasun ditu zure liburuak: edukiz, egituraz, estiloz...?

Batetik, kronologia hutsa jarraitu beharrean, hamar gakoren bidez gidatzen da kontakizuna. Gako bakoitzak **Maitane Azurmendiren** ilustrazioek eta aipu historikoek osatzen dute, irakurketaren esperientzia aberastuz. Bestetik, hizkuntzak ere badu bere garrantzia: euskaraz sortutako lan bat da, eta saiatu naiz estiloa ahalik eta gertukoena izan dadin, gai konplexu bat irakurlearengana hurbiltzeko.

Aurreikuspenik egiterik badago gatazka horren amaieraz?

Zaila da. Liburua amaitu nuenetik gaur arte gertaera asko izan dira, eta tamalez, ez dute hobera egin. Horrek erakusten du gatazkak ez duela itxiera erraza, eta interes geopolitiko eta historiko askok baldintzatzen dutela. Hala ere, ulermena eta kontzientzia zabaltzea ezinbestekoa da etorkizun justuago bat imajinatzeko.

ELAIA AGIRRE
Kazetaria

LUIS GARDE

Nikolai Ivanovitx Vavilov biologo errusiarraren egiazko bizitzaren gainean eraiki du bere hirugarren nobela Luis Gardek (Iruñea, 1961): *Herriaren etsaia*. Fikzioa eta poetika lagun, idazleak zorrotz uztartu ditu botereari eta hitzen indarrari buruzko gogoetak.

Zein izan zen nobelaren lehen hazia?

Maitasun kolpe bat izan zen. Dibulgazio zientifikoko liburu bat irakurtzen ari nintzela, lerro interesgarri batekin egin nuen topo. Hartan, erraten zen Sobietar Batasunak bereganatu egin zuela agronomo batek gariaren ekoizpenerako azaldutako teoria bat, baina kale egin zuela, eta milioika pertsona hil zirela ondorioz. Horri buruz gehiago ikertzen hasi, eta Nikolai Ivanovitx Vavilovekin egin nuen topo gero.

Hagitx erakargarria iruditu zitzaidan zer edo zer idazteko.

Zein da haren historia?

Vavilov bat zetorren Europan zabalitzen ari zen genetikaren teoriarekin. Hasieran jeniotzat zeukaten, baina, iraultza boltxebikea gertatu eta urte batzuetara, erregimenak mehatxutzat hartu zuen teoria hori, Mendelbaldeko asmakizun burges eta faxista zelakoan. Gogor egin zioten kontra.

Liburua XX. mendean eta atzerrian dago kokatua; baliteke horrek halako distantzia bat paratzea kontakizunaren eta irakurlearen artean. Idazketan, presente izan duzu hori?

Nire aurreko bi nobeletan markoa hemengoa zen; bannuen gogoa arnasa hartzeko eta hemendik ateratzeko. Unibertsal da literatura, eta euskal literaturak ere ez du zertan beti landu tokiko gairik. Gainera, beti egin ditzaizke konparazioak, eta uste dut nobelaren izenburua bera ere begi kliska bat dela: guk ez dugu izan sobietarrik, baina izan dugu herriaren etsairik, edo, behintzat, batzuk hala izendatu dituzte.

Nolakoa esanen zenuke izan dela zure kontamondea lan honetan?

Tonu diferenteak daude. Batzuetan, gehiago erabiltzen dut historia; betiere, *wikipedismoa* saihestuz, in-



HERRIAREN ETSAIA

Luis Garde
PAMIELA

formazioa mamituz, neure erara ekarriz. Beste zenbait pasartetan, tonua narratiboagoa da, eta fikzioak pisu handiagoa du. Beste inoiz, agian ageriago gelditzen da tonu poetiko bat. Eta hausnarketak. Horiak gabe ez dakit idazten, eta, igual, horiek gabe honek ez luke interesik.

UXUE REY GORRAIZ

Kazetaria

Elkarrizketa osorik:

https://labur.eus/Luis_Garde



OLATZ MITXELENA

Hamar ipuin bildu ditu Olatz Mitxelenak bere bigarren narrazio liburuan: *Etxe arrotz hau*. Berarekin hitz egin dugu.

kanta eta *Landare bizitza* izan dira, bietan ahots batean sakonago sartu naizelako. Ironia ere asko gustatzen zait, baita zakarkeria ere, hizkuntza puskatuago bat, ez hain txukuna.

Hiru urte igaro dira aurreko ipuin liburutik. Idazle gisa, aldatu da zerbait?

Aurrekoa bukatu orduko, etxeko-lan batzuk geratu zitzaizkidan, eta orain beste gauza batzuk ikasi ostean, sentitzen dut gogoia beste nonbait daukadala berriro. Bidea erakusten du liburu honek.

ITZIAR UGARTE IRIZAR

Kazetaria

Elkarrizketa osorik:

https://labur.eus/Olatz_Mitxelena



ETXE ARROTZ HAU

Olatz Mitxelena
SUSA

Etxearen ustezko babesari, arrotzasunaren tentsioa kontrajarri diozu. Nolatan?

Kontrapuntu hori izan da ipuinok idazteko abiapuntua: etxea, gertukoena eta intimoa den leku hori nola bihurtzen zaigun batzuetan arrotz eta beldurgarri: eroso behar genukeen horretan nola sentitzen garen batzuetan deseroso.

Ipuinen agertokiak ugariak dira, baina bikote eta familia harremanak ageri dira gehienetan. Bereziki behatu nahi izan duzu eremu horietako arrarotasuna?

Nahi baino gehiago, hala atera zait etxeari eta horietan gertatzen denari begira jartzean. Baina arrarotasuna bai, hori bai izan da egoeretan eta pertsonaietan bilatu nahi izan dudana zerbait.

Hor egon daiteke zenbait ipuinen tentsioa?

Bai, baina ez da kalkulu bat izan, irrazionaltasunarekin lotzen dut gehiago: esplikatu ezin den hori mila modutara lehertzen zaigu, izan ametsetan, manietan edo bestelako obsesio eta arrarotasunetan.

Ipuin laburrak izanda, tarte gutxi dago pertsonaiak ezagutzeko. Zer ekarri dizu horrek?

Aurretik eraikitzen bainoago, nire sentsazioa da esaldiei, hitzei, pertsonaiei tiraka aritzen naizela. Irudi batetik has naiteke, edo esaldi batetik, giro batetik, eta hari segitzen diot. Pertsonaiak agertzen dira, eta beste pieza batzuekin elkartzen ditut ikusteko ea zer egiten duten.

Tonuak ere ugari dira liburuan. Bada bereziki gozagarri zaizun erregistrorik?

Tonua inporta zaidan zerbait da. Zenbaitetan, idazten hasteko baldintza bat ia. *Otea erre-n*, adibidez, haserre nahi nuen; baita *Sehaska kanta*-n ere, minarekin batera. Idazteko gozagarrienak *Sehaska*



©Maria Ródenas

txalaparta



Pol Guasch famatu zuen eleberria, orain euskaraz.

Ekainaren 3an liburu dendetan.



AUZOLANAREN LURRETAN, EHZ: 30 URTEZ ZUZENEAN

1996an sortu zenetik, Euskal Herria Zuzenean (EHZ) festibala musika ekitaldi bat baino askoz gehiago izan da. Hasieratik, euskarari eta herriari lotutako etorkizun desiragarri baten irudia landu du, belaunaldien artean zubiak eraikiz. Denborarekin, festibala herrigintzaren eta kulturgintzaren erreferente bihurtu da: auzolanean oinarritutako egitasmo bizia, etengabe berritzen jakin duena.

EHZk bere baitan bildu ditu harremanak, doinuak, borroka eta alternatibak. Urtez urte, ehunka lagunek parte hartu dute antolaketan zein bizipenean, eta horrek eman dio bere izaera berezia, kolektibotasunean oinarritutako proiektu irekia, bai oholta gainean, bai atzean. Liburu honek festibalaren 30 urteko ibilbidea jasotzen du, hura egin dutenen ahotik. EHZ bizi arazi duten pertsonen testigantzek osatzen dute narrazioa, bakoitzak bere ikuspegia eta esperientzia ekarriz. Horri gehitzen zaizkio argazki eta ilustrazio ugari, garaien atmosfera eta bilakaera islatzen dutenak. Esan daiteke, EHZren arrakastaren gakoetako bat transmisioa izan dela. Egokitze gaitasunak eta elkarlanaren horizontaltasunak ahalbidetu dute hiru hamarkadatan zehar belaunaldi berriek lekuko hartu eta, oinarritzko

balioei eutsiz, proiektua berrinterpretatzea beti. Auzolanaren lurretan kokatzen da EHZ: elkarlanetik sortu eta elikatzen den espazioan. Horrek egiten du inspirazio iturri Euskal Herri osoan herrigintzan eta kulturgintzan dihardutenentzat. Liburu honek ondare hori partekatzeko asmoa du, iraganari begiratz baino etorkizuna irudikatzeko tresnak eskainiz. Azken finean, Euskal Herria Zuzenean ez da festibal huts bat, komunitate bat baizik, etengabe eraikitzen ari dena. Eta liburu hau historia horretan murgiltzeko gonbidapen bat da, parte izan diren ahotsen bidez, etorkizuneko bideak elkarrekin pentsatzeko.

MAITE AGARRE
Kazetaria



**AUZOLANAREN LURRETAN.
EHZ: 30 URTEZ ZUZENEAN**

Batzuk
ELKAR



INSOMNIO GAUAK
Elizabeth Hardwick
IGELA

EXISTENTZIAREN GAZI-GOZOAREN ISLA EDERRENA

Elizabeth Hardwick-en prosa sinesgaitza da; haren edertasunak, zolitasunak eta maisutasunak obsesiboki itotzen dute irakurlea loezin amaigabe eta gozagari batean. Nobela gogoangarri honetan, etengabe harilkatzen diren testu zatikatuen bidez, haren bizitzako nahiz asmatutako pertsonaien erretratu dekadenteak eskaintzen dizkigu.

Joxe Mari Berasategi itzultzailearen hitzetan, "aintzat hartu behar da insomnio-orduen ekoizkin gisa aurkezten zaigula, guztiz fragmentario, hari garbirik gabe, saiakeraren mailako pentsaera sakonen katramilan bilbatuz autobiografiatik ere baduten pasadizoak eta era askotako jendeen analisi ezin zehatzagoak, landa-girotik hasi eta New York hiri erraldoiraino, Estatu Batuetatik Herbehereetaraino. Hardwick behatzaile ilustratu zorrotza da, eta giza miserien desflea aurkezten digu, fin bezain zoli". Liburuak badu autobiografia baten zantzurik; izan ere, Hardwicken bizitzarekin lotura estua du, eta lehen pertsona dago idatzia. Hala ere, arte-lan ezin erakarriago honen amaieran aurki ditzakegu idazlearen literatura-ikusmoldearen nondik norakoak: "Aldizka gogaitu egiten nau askok nire benetako bizitzaz egiten duten glosarioak, egiarekin bat etortzeak, betaurreko pare gehigarri bat balute bezala". Hardwickek berak aipatu zuen nobela idazteko abiapuntua esaldi bakar batek eragin ziola: "Nobela idatziko dut, baina ez dakit ni edo hura deitu nire buruari". Azkenean, esaldia eza-

batzea erabaki zuen, "ni" hori gehiegi gailentzen ari zitzaioala oharitu ondoren. Autobiografiaren galbahea baliatuta —amari igorritako gutunak baitira liburuaren ardatza—, gizakion miseriak, hantusteak eta ihesbideak ditu idazgai, talentuz mukurru. **Billie Holiday**, haurtzaroko amorante iheskor bat, bizitzaz blai zorientasunaren gorenean zubi batekin jauzi egiten duten gizonezko petralak, Kentuckyko derbyaren ingurumariak, Herbehereetan kokatutako maitaleen triangelu dekadenteak, New Yorkeko artistak eta artista izateko esperantza galdu duten pertsonaiak, eta eternitatea heldu arte irakur litezkeen beste hamaiaka gai jorratzen ditu XX. mendeko nobela ahaztu eta goren honetan.

HASIERA KONDOKO
Kazetaria

Artikulu osoa:
https://labur.eus/Elizabeth_Hardwick




EL TRABAJO NO TIENE POR QUÉ SER UNA LOCURA

Vivimos en una cultura que confunde compromiso con agotamiento: jornadas interminables, chats que no descansan, reuniones que lo devoran todo. Jason Fried y David Heinemeier Hansson desmontan esa religión del ajetreo y proponen un modelo radicalmente sensato: la empresa serena.

¿Llegas al verano con la sensación de que el año te ha pasado por encima... otra vez? ¿Cuentas los días que faltan para las vacaciones como si tu vida dependiera de ello? ¿Sientes que, ahora que por fin tendrás tiempo para vivir, no te queda ni un 1% de batería? Vivimos en una cultura que confunde compromiso con agotamiento, en la que se premian las jornadas interminables y en la que las reuniones arrasan con nuestros días. Hemos normalizado dedicar más tiempo a las "crisis" que a la creatividad, y nuestras jornadas laborales están fragmentadas en pequeños y fugaces momentos de trabajo real, interrumpidos por una avalancha de distracciones que nos queman y agotan. Se trabaja más, pero se hace menos. Y el estrés no se detiene cuando acaba la jornada, pues se contagia a la vida personal e infecta las relaciones con amigos y familia. Cuando por fin llega el verano, ya no hablamos ni de descansar, ¡hablamos de sobrevivir!

Jason Fried y David Heinemeier Hansson llevan casi veinte años demostrando que existe otra forma de trabajar. En este libro proponen un modelo radicalmente sensato: el de la empresa serena. Su propuesta no consiste en "meter más horas", sino en diseñar procesos que protegen el tiempo y la atención, eliminan distracciones que disfrazan de trabajo lo que no lo es y evitan que tu vida se convierta en las migajas que quedan después de la jornada. Porque la calma no está reñida con la rentabilidad, y el trabajo puede ser exigente... sin ser una locura. Jason Fried y David Heinemeier Hansson son autores superventas del New York Times y fundadores de la exitosa tecnológica Basecamp, el paradigma de la "empresa serena".

LUIS GARCÍA
Periodista



EL TRABAJO NO TIENE POR QUÉ SER UNA LOCURA
Jason Fried / David Heinemeier Hansson
TENOS



EL MISTERIO DE LAS HERMANAS FLOWERS
Michelle Collins Anderson
LIRIVA EDITORES

EL MISTERIO DE LAS HERMANAS FLOWER

Michelle Collins se ha inspirado en la historia real de la explosión del Bond Dance Hall, una tragedia ocurrida en su localidad natal, West Plains, Missouri, el 13 de abril de 1928. La causa de la explosión nunca fue determinada.

Daisy Flowers tiene quince años en 1978 cuando su madre, de espíritu libre, la deja en Possum Flats, Missouri. Es un pueblo cuyo nombre suena a animal atropellado y que, a ojos de Daisy, está tan muerto como parece. Condenada a pasar el verano con su abuela, la mordaz e irreverente funeraria del pueblo, Daisy se niega a trabajar en el negocio familiar, la Funeraria Flowers. En su lugar, consigue unas prácticas en el periódico local donde, al revisar los archivos del sótano, descubre una misteriosa tragedia ocurrida cincuenta años atrás...

En una noche sofocante y terrible de 1928, una explosión en el salón de baile local dejó decenas de jóvenes muertos. La tragedia conmocionó y marcó para siempre

a un pueblo que aún no sabe cómo ni por qué ocurrió. Entre las víctimas figura un nombre sorprendentemente familiar para Daisy, que revela una irresistible conexión familiar con aquel accidente del pasado. Obsesionada con investigar los horrores y los héroes de esa noche, Daisy pronto descubre que Possum Flats guarda innumerables secretos para ser un pueblo tan pequeño. Y casi nadie de entre quienes recuerdan la tragedia está dispuesto a que una adolescente hippie haga preguntas al respecto: ni el predicador de fuego y azufre que encontró su vocación aquella noche; ni el jefe de policía cansado de todo; ni la viuda del alcalde o su amante; ni siquiera la propia abuela de Daisy, una mujer que nunca ha temido levantar cejas por lo que viste, dice o por la forma en que se gana la vida. Algunos secretos los custodian los vivos, otros los guardan los muertos, pero a medida que las verdades enteradas salen a la luz, forzarán por fin un ajuste de cuentas.

JUAN RIAÑO
Periodista

ALGUNAS HISTORIAS SE QUEDAN PARA SIEMPRE

UN FENÓMENO INTERNACIONAL
CON MÁS DE 4.200.000 DE EJEMPLARES VENDIDOS

CULPA
VUESTRA

AUTORA BESTSELLER DE THE NEW YORK TIMES

MERCEDES RON

MERCEDES RON

EL FENÓMENO GLOBAL EDITORIAL CONTINÚA

MONTENA

GERATZEN DENA

Ione Gorostartzuk (Berastegi, 1984) *Geratzen dena* izeneko hirugarren poema liburua plazaratu du. Aitaren heriotzaren ondorengo dolua du abiapuntu, eta bizitzaren egunerokotasunari helduta, aurrera jarraitu beharraz ere idatzi du.

Poema batean aipatu duzu aitaren heriotzarekin baino, bere bizitzarekin geratzeko bidea zeharkatzea izan dela zuzenat dolua. Liburuak lagundu dizu horretan?

Poemak idatzita neuzkan eta liburua osatzeko bidea hori izan da. Albiste bat jaso eta dena geratzen den momentutik hasten da, eta gero absentzia hori da bidea. Aitarenganako hurbilketa bat ere badago. Liburuan aurrera joan ahala, bizitza gailentzen da. Ez dut erabaki horri buruz idaztea, baina beste ezertaz ezin nuen idatzi une batzuetan. Hala ere, oso gai ezberdinak ere badaude, zerbait handi geratzen zaizunean ere, bizitzak, egunerokoak, aurrera jarraitzen baitu.

Objektuen bidez heltzen diezu gai potolo horiei, gauza konkretuetatik.

Zerbait zehatza behar izaten dut idazteko: objektu bat, usain bat, soinu bat... Detalle txiki horiek normalean barne mundura eramaten zaituzte: kezkak, minak... Detalleetatik gai unibertsal edo zabalagoetarako, sentimenduetarako bidea jorratzen dut. Entzun edota sentitu daitezkeen poemak gustatzen zaizkit, argazki bat-edo bilatzen dudalako.

Norberaren eta gizartearen kontraesanak ere azaleratu dituzu.

Ideiak azaleratzea baino, galderak sortzea gustatzen zait, eta kontraesanak eta zirrikituak interesatzen zaizkit. Hori umoretik egiten saiatzen naiz. Autokritikatik edo nire buruari barre egitetik iritsi nahi izaten dut gizarteke kezka edo gaixotasun horietara.


Hitzekin jolasteko joera ere baduzu: errepikapenak, erritmoa, hoskidetasuna...

Poema asko intuizioz etorri zaizkit: esaldi batekin, soinu batekin... Askotan bi hitz elkartu, edo soinu bat, eta horrek eramaten zaitu hausnartzera, zerbait esatera. Asko interesatzen zait jolasa eta umorea, iruditzen zaidalako minean ere edertasuna topa daitekeela eta, alderantziz, edertasunak min asko ezkututzen dituela.

MAITANE LEGARRETA
Kazetaria



GERATZEN DENA
Ione Gorostartzu
ELKAR



ITSASOAREN AHUTZAK
Jon Alonso / Adur
ELKAR

ITSASOAREN AHUTZAK

Komiki moduan argitaratutako istorio hau egiazko kasu batean dago oinarrituta: Jose Migel Etxeberrria (*Naparra, Bakunin*) errefuxiatu iruñarraren desagertzea, 1980. urtean gertatua. Jon Alonsok hartu du gidoiaren ardura; komikia, berriz, Adur Larreari zor zaio.

Itsasoaren ahutzak komikiak iragan ez hain urruti batean gertatutako egiazko gertaerak ditu oinarri. Hain da horrela, ezen adinean aurrera joandakoei ez zaien zaila izango gertaera horien oihartzunak atzematea. Komikia, ordea, fikzio bat da hasieratik bukaeraraino, eta fikzioak irakurtzeko erabili ohi diren betaurrekoekin irakurri behar da. Eta, hala ere, nork daki irakurlearen bizitzak baldintzatu dituzten zenbat eta zenbat gauza ez ote diren antzeko bideetatik erabaki.

Jon Alonsok *Naparra, kasu irekia* argitaratu zuen 2020. urtean Elkar argitaletxean. Liburu hartan errefuxiatuaren ibilbidea ikertu ondoren, kasuaz jakindakoa aztertu zuen egileak, beti elkarrizketetan eta egiazko datuetan oinarrituta. Oraingo argitalpenean, ordea, beste bat da asmoa: ikerketa horietan jasotako datuekin eta ezagutzarekin, irudikatu nahi izan dute egileek desagertzea abiarazi zuten ekintzak nola gertatu ahal izan ziren.

Istorioren abiapuntua Hendaian kokatuta dago 1979. urtean. Amaiera, berriz, Genevan, Suitzan, 2014. urtean, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren

Bulegoak, kasuaren lekukotzak eta ikerketak aintzat hartuta eta nazioarteko zuzenbideen arauak kontuan hartuta, aitortzen duenean militante politikoa indarkeriazko desagertze baten biktima izan zela eta kasuak ez duela preskribatuko desagertutakoaren gorpua aurkitu arte. Liburuaren azala ederki asko iradokitzen du itsasoa hondogabea, boteretsua eta zabala dela. Egileek esan bezala, "itsasoa engainagarria da, gesalaren kolore aldakorra bezainbeste. Itsasoaren ahutzek Atlantida irentsi zuten, baina denboraren denbora ere irensteko gai dira. Itsasoan lainoa hedatzen denean labirinto infinitu bat baino ez da geratzen, eta kalatxoriak ere galdu egiten dira. Itsasoaren ahutzek memoria dute, eta haiek baino ez dakite zer ezkututzen duten. Hamaika modu leudeke militante politikoa desagerrarazteko. Hemen kontatzen dena horietako bat liteke".

MARIA AGIRRE
Kazetaria



A PRUEBA DE HERVOR

Alma Sampedro
PLATAFORMA

Cuando la vida hierve, no se trata de huir del fuego, sino de aprender a reconocer tu propio sabor. Clara Fernández siempre creyó tener la receta de la felicidad perfectamente medida: un trabajo estable que le daba seguridad, una relación sólida que parecía destinada a durar y una vida ordenada donde cada cosa ocupaba su lugar. Pero la vida, como los soufflés más delicados, se desmorona cuando menos lo esperas y sin previo aviso. De pronto,

La novela *A prueba de hervor*, de Alma Sampedro, seudónimo de Patricia Aliaga, se ha alzado con el premio Feel Good, certamen literario de la editorial Plataforma cuyo fin es impulsar el optimismo entre escritores y lectores, a partir de historias con autenticidad y sentido. Ahora llega a las librerías.

todo aquello que parecía firme pierde consistencia. Sin pensarlo demasiado, empujada por una mezcla de vértigo y lucidez, Clara toma el primer vuelo a París con una maleta mal hecha, llena de dudas, y una certeza pequeña pero feroz: la necesidad urgente de volver a encontrarse. En la ciudad del caos hermoso, de las calles que invitan a perderse y del pan perfecto que huele a hogar, llega a L'Atelier de Camille, una escuela de cocina donde las recetas no solo se aprenden, sino que se sienten. Allí, entre risas compartidas, errores inevitables y nuevos comienzos, Clara redescubrirá el placer de cocinar sin miedo y de vivir sin seguir un guion impuesto. Cada plato será un paso hacia sí misma. Entre fogones y con-

fidencias también la espera Julien, el chef que una vez le enseñó que encontrar el punto justo -del caramelo y del amor- puede cambiarlo todo.

Porque a veces los segundos platos, como las segundas oportunidades, tienen un sabor más profundo, más auténtico, más valiente. Con el aroma irrisistible de una comedia romántica y la ternura de una confesión íntima, *A prueba de hervor* es una historia sobre mujeres que se reinventan, decisiones que transforman y amores que regresan cuando uno ya no los busca.

LUCAS MARTÍNEZ
Periodista

SALSA NOSTRA

***Saltsa Nostra*, una saga de gastro-thrillers con forma de cómic**

La colección *Saltsa Nostra* publicó en 2025 sus dos primeros títulos y ya prepara los dos siguientes. Conforma así, publicado en euskara y castellano, un género auténticamente innovador, con formato de cómic y contenido bautizado por sus impulsores como "gastro-thriller".

Hay quienes dicen que es un libro de recetas. Quienes hablan de esta saga como una colección de cómics. La realidad es que en el corazón de *Saltsa Nostra* late una lucha de poder entre dos modelos opuestos: una gastronomía basada en el respeto al producto, al origen y a la cultura, enfrentada a la industria de la comida rápida, que avanza a gran velocidad para homogeneizar paisajes, hábitos y ciudades. En esa tesitura, la propuesta es clara: plantar cara y recuperar el control.

En este original universo, cada volumen de la saga construye una historia donde la cocina se convierte en lenguaje, resistencia y estrategia. Tras un primer volumen, Done Joanesen erraietan o En las entrañas de los Santos Juanes, protagonizado por Sergio Ortiz de Zarate, la segunda entrega situó en el centro a Hideki Matsuhisa, elevando la tensión narrativa y ampliando el alcance del proyecto. Historia y recetas en un mismo volumen (Hideki Matsuhisaren errezeta liburua / El libro de recetas de Hideki Mathuhisa).

El libro constituye auténtico gastro-thriller, donde la gastronomía deja de ser únicamente un arte para convertirse en un campo de batalla. Hideki encarna la precisión y la filosofía de la cocina japonesa, pero también una forma de entender la cocina como herramienta de influencia y transformación.

El relato se enriquece con la aparición de grandes figuras de la cocina internacional como Jordi Roca, Ferran Adrià, Nobu Matsuhisa o Juan Mari Arzak, integrados con naturalidad en la narrativa, con lo que aportan una dimensión única que conecta ficción y realidad.

La colección continuará con la incorporación de nuevos protagonistas, lo que consolidará un universo en expansión.



SALTSA NOSTRA
Pedro Rivero
Sergio Ortiz de Zarate
Iker Bidosola
Wakana Sakamoto
TARISKO

Actualmente se trabaja en el tercer volumen, protagonizado por Jordi Roca, y en el cuarto, centrado en Eneko Atxa.

LUCÍA TOBALINA
Periodista

MÁS DE 5.000.000 DE EJEMPLARES VENDIDOS

ELÍSA BENAVENT

LAS PEQUEÑAS
REVOLUCIONES
EMPIEZAN CON UN LIBRO

Por la autora de *Un cuento perfecto*

ELÍSA BENAVENT
UNA NIÑA BUENA

MÉJOR PELÍCULA | MEJOR ACTRIZ | MEJOR GUION

SUMA



EUSKAL HERRIKO MUGAK, OINEZ

Mugak bitan zatitutako herri honek ez du muga ofizialik. Existitzen ez den herri honi bere maparen profila ere ukatu izan zaio, behin baino gehiagotan. Eta, hala ere, tipi-tapa, mugaz muga, 66 etapatan, itsasoa, mendi lerdenak, ibai emaritsuak, basamortuak eta lautada amaigabeak bidaide, Euskal Herriari itzulia eman ahal diogu. Hori da *Euskal Herriko mugak oinez* liburuaren proposamen kitzikagarria. Bagoaz?

Abentura ederren bila dabilenak ez du urrutira joan behar. Goierriatik erronka paregabea bota digute mendizale guztioi. Mugak bitan zatitutako herri honi itzulia ematea... mugaz muga. Goierriko Mendizale Beteranoek 66 etapa atondu dituzte Euskal Herriko itzulia muga-mugan osatzeko. Orotara 1.382 km dira zazpi herrialdeetako profila osatu arte. Beraz, etapa bakoitzaren batez besteko luzera 20 kilometrokoa da, gutxi gorabehera.

Liburuak bost atal ditu: itsasoa muga (Baiona eta Muskiz arteko 14 etapa), mendebaldeko muga (Muskiztik Zanbrana, 16 etapa), hegoaldeko muga (Zanbrana Cortesera, 13 etapa), ekialdeko muga (Cortestik Eskiulara, 18 etapa) eta iparraldeko muga (Eskiularatik Baionara, 5 etapa). Hortaz, zazpi herrialdeetako perimetrotik egitekoa da Euskal Herriko itzuli hau. Eta badakigu nolakoa den pe-

rimetro hori, paisaia sorta jori bat, gure herri txiki honen erakusgarri bikaina. Egileek proposatutako ordenari jarraituz, lehenengo zatia gure kostaldeari estu atxikita doa, kresalaz busti-bustita, hondartza, itsasadar, portu, talaia, itsaslabar eta flysch artean. Mendebaldeko muga, berriz, menditsua da oso, Armañongo eta Valderejoko parke naturalak, Ordunte, Gorobel, Gibillo eta Arcenako mendilerroak izanik izar nagusiak.

Hegoaldeko muga askoz lauagoa da, oro har, eta etapa gehienetan Ebro ibaia arituko da ibiltarion bidaide. Arabako Errioxan eta Ebroko ibai-bazterretan ibili eta gero, Moncayo zerumugan nagusi dela, Cortes aldera helduko gara. Handik abiatzen da laugarren atala, ekialdeko muga. Lehenengo Bardeetako basamortua zeharkatuko dugu, ondoren, Leireko mendizerratik, Erronkaribar-ko tontoretara iritsiko gara. Han erronkarik handienak



EUSKAL HERRIKO MUGAK, OINEZ
Goierriko Mendizale Beteranoak
SUA EDIZIOAK

BEHAR DEN GUZTIAZ HORNITUTA

Liburuak 66 etapetako deskribapena dakar, gehi mapa orokorra eta Euskal Herriko perimetro geografikoaren datu orokorrak (kilometroak, desnibelak, banaketa administratiboak...). Etapa bakoitzean, gainera, jakingarri praktikoak (denborak, desnibela, luzera, oharrak...), mapa, argazkiak -gehienetan- eta ibilbideko tracka deskargatzeko QR kodea aurkituko ditugu. Dena esku-eskura, beraz, erronkari ekiteko. Euskal Herria zain dugu.



zain izango ditugu: Ezkaurre, Hiru Erregeen Mahaia... Pirinioetako ardatza gainditu eta ipar isurialdean behe-
ra segitu behar dugu, Zuberoan barrena Eskiularaino. Azken atala iparraldeko mugari dagokio. Eskiulatik Baionara joango gara, muino txikien eta ibai handien (Biduze, Aturri) saihetsetik, gaskoiaren eta euskararen arteko mugari atxikita. Askotan gertatzen denez mendiak mugatzat jotzen ditugula, *Euskal Herriko mugak oinez* liburuko ibilbideak 70 tontorretara igotzea eskatzen du. Tartean dira Pirinioetako gailur handiak, Auñamendi mitikoa esate baterako, baina baita erdi mailako andana bat ere, Orduñe, Gorobel, Arcena eta Anderejo mendilerroetakoak kasu (Zalama, Iturrigorri...), Otoño edo Luzueroren gisako itsas talaiak... Egileek Baionan jarri dute ibilbidearen abiapuntua baina, jakina, norbera nahi duen etapatik hasi liteke ibilian. Zer esanik ez, ez dago zertan etapak jarraian egin. Egileek eurek ere ez dute horrela bete haien erronka. 2012 eta 2018 bitartean egindako txangoekin Euskal Herriko muga gehienak egin zituzten. Egiteke gelditu zitzaizkien azken urteotan osatu dituzte, harik eta Euskal Herriko itzulia bururaino eramán duten arte.



HEKTOR ORTEGA
Editorea

NOBEDADEAK




DOLOMITAS 3 (LONELY PLANET)
AAVV
GEOPLANETA

Entre senderos panorámicos, bosques silenciosos y praderas abiertas, los Dolomitas combinan aventura, tradición y emoción en cada recorrido. Con su imponente paisaje alpino, su cultura local y su atmósfera serena, son un destino ideal.



HERNIO ETA PAGOETAKO NATURA PARKEA
Mikel Arrizabalaga
SUA EDIZIOAK

Liburu honek 29 ibilbide bildu ditu Hernio-Gazume mendigunean eta Pagoetako natura parkean barrena. Eremu ederrak dira, natura joria eta giza jardueraren lorratz ikusgarriak gorde dituztenak, Urola eta Oriá ibaietako ibarren eta itsasoaren artean.



MONTAÑISMO Y TREKKING. MANUAL COMPLETO
Joaquín Colorado
DESNIVEL

Joaquín Colorado, alpinista, profesor y guía de alta montaña, nos ofrece un manual sobre todos los aspectos relacionados con los deportes de montaña: material y vestimenta, progresión por terrenos difíciles, medios nevados y glaciares...



ZERO AZPITIK (ISTORIOAK)
Juan Vallejo
SUA EDIZIOAK

Eskalatzaile gutxiak eduki du hormatik erori eta bizirik ateratzeko zoria. Juan Vallejo onik atera zen, baina zauri larriekin. Ohean etzanda, bere ibilbidea errepasatu du. Pirinioak, Himalaia, Karakorum, Patagonia, Yosemite, Peru, Groenlandia...



GUÍA CAMPING FECC 2026
AAVV
EDICIONES JD

Guía oficial de la Federación Española de Clubes Campistas, hace más de 40 años que se edita. Es muy interesante para quienes valoran tener una herramienta entre las manos de consulta a la hora de elegir el camping.




DESTINO JAPÓN (GUÍAS VISUALES)
Rebecca Hallet
DORLING KINDERSLEY

Este libro recoge todo lo que hace de Japón un país fascinante: paisajes, tradiciones, gastronomía, arte y cultura. Aquí empieza el viaje de tu vida.

DEBATE

EL LIBRO QUE CAMBIARÁ CÓMO ENTIENDES LA VIDA EN LA ERA DE LA INTELIGENCIA ARTIFICIAL



«Deslumbrante, adictivo y revelador. Es uno de los mejores libros de divulgación que he leído en mi vida».
ROSA MONTERO

«Una obra imprescindible para comprender nuestro tiempo».
JAVIER SOLANA

 Penguin Random House Grupo Editorial
www.penguinlibros.com
@PenguinLibros

Laja

ORDU TXIKITAKO SAIOAK

Íñaki Garmendia *Laja* (1944-2019) trikitilariak altxorra gorde zuen etxean hainbat urtez. Baserrian, bakardadean, soinu txikia jotzen trebatzen zenean, bere saioak grabatu zituen. Ondare horretako 40 kantu aukeratu (2 CD) argitaratu ditu Elkarrek, *Ordu txikitako saioak* izenburupean.

ARGAZKIA: IBON ERRAZU

Egun batean, 1960 urte aldean, **Jacinto Rivas *Elgeta*** trikitilari mitikoak autobusa hartu zuen Tolosan, Azkoitira heltzeko asmoz. Han zain zuen *Laja* baserriko andrea. Esku-soinua eta bere arropak asto-otarrean ipini eta herrigunetik abiatu ziren, tipi-tapa, Santa Kutz auzorako bidean gora. Hurrengo hilabeteak baserrian pasatu zituen *Elgetak*, *Lajako* semeari eskusoinua jotzen trebatzeko eskolak ematen. Gazteak ondo aprobetxatu zituen saio haiek eta, zalantzarik gabe, bizitza aldatu zitzaion. "Niri amak eta aitak egin zidaten mesederik handiena hori izan zen: *Elgeta* etxera ekartzea. Eskerrak hari!". Horrela gogoratu zuen Íñaki Garmendia *Lajak* berak, zahartzaroan, urte askotan Gipuzkoako herri guztietan eta Euskal Herriko gainerako herrialdeetako leku askotan trikitiaz bazterrak alaitzen ibili eta gero. XIX. mendean heldu zen akordeoi diatonikoa Euskal Herriera eta laster zabaldu zen lau haizetara. Klase xeheenen artean loratu zen bereziki. Euskal musikaren ikurretako bat bilakatu zen, hain egin zituen sustrai sakonak gure artean. Herri musikak herria behar du eta *Laja Elgetaren* eta **Faustino Aspiazu *Sakabiren*** ikasle izan zen bezala, ehunka gazte dira *Lajaren* eskolak hartutakoak. Horrela igaro da esku-soinuaren kultura belaunez belau, iturriko ura bezala, betiko ura baina beti berri.

Haritz Garmendia Urola Erdiko Trikitigiro elkarteko kideak nabarmendu duenez, "*Lajaren* soinuaren konpasera dantzatu dute XIX. mendearen hondarretik hasi eta XXI. mendearen hasierara bitartean jaiotako lau edo bost belaunaldiek, era guztietako ospakizunetan: ezkontzak, bataioak, kinto-afariak, despedidak, oilasko-biltzeak, erromeriak, santa eskea, omenaldiak...". *Lajak* berak

behin baino gehiagotan azaldu zuen luzaro jardun izanaren zergatia: "Soinua ondo jo ez ezik, inportantea da herriarekin elkartzen jakitea, bat egitea. Eskatutakoa ematen saiatzen bazara, berriz ere itzuliko zara herri horretara. Maila ona eman behar da, jendearekin ondo konektatu, eta eskatzen dizuna ematen ahalegindu". Jardun oparo horrek zortzi bat disko ere ekarri zituen, pandero-jole trebeekin lankidetzan: **Iturbide, Landakanda, Mikel, Eguren** eta **Ziolarrekin** hain zuzen.

BERROGEI DOINU

Bada, hori guztia egundokoa izanik ere, *Ordu txikitako saioak* cd bikoitzak ekarpen itzela egiten dio soinu txikiaren ondareari. *Lajak* ordu asko ematen zituen etxean, gelatxo batean, entseguak egiten. Saio horiek kasetetan grabatzen zituen eta horrela ordu askotako materiala bildu zuen. Doinu sorta oparo horretan 40 pieza aukeratu eta *Ordu txikitako saioak* plazaratu du Elkarrek. **Anjel Valdes** musika adituaren hitzetan, "dantza solte zein arrimaturako doinuak dira, *Lajari* plazan jotzea gustatzen zitzaion bezala. Erromerietan jendea alai eta dantzari ikustea izaten baitzen berarentzat saririk handiena. Haren etorriaren distira eta berezko sena islatzen ditu lan honek, herentzian utzi digun ondarea".

Haritz Garmendiaren aburuz, disko hau "herri musikari baten isileko lanaren testigantza da. Oholta gainekeo distiraren atzean dagoen izerdia. Herri xumearen festa



ORDU TXIKITAKO SAIOAK
Laja
ELKAR



duintzeko ahalegin kolosala. 40 abesti horiek euskal herri kulturaren oroimen bizia dira". Baserriko gelatxo batean grabatu eta gero, urte asko egin dute kantuok etxeko zokondo batean txukun gorderik. Orain, Garmendia Dorronsoro familiari esker, zaletu guztien esku dago. Herri musikaren atal hori herriari itzuli zaio, duin, eder, jori.

TOMAS ZABALLA
Kazetaria

NIKO ETA AMONAREN ABENTURAK

Niko eta amonaren abenturak argitaratu berri ditu Abel Amutxategik Piramide hegalarien kasua liburuan. Beste behin, fantasiaz eta umorez beteriko mundu ezezagunetara bidaiatzea proposatu du egileak.

Planeta ezezagunak, zientzia-fikzioa... Nahasketa ederra prestatu duzu orain ere!

Umorea eta genero literaturaren konbinazioa beti iruditu zait oso lur emankorra irudimenerako. Izan ere, umorea konstante bat da nire liburu guztietan, bai helduentzat idazten dudanean eta baita umeentzat idazten dudanean ere. Niko eta amona Gregoriri esker, haur literaturak umorean aritzeko sozialki onartuta dagoen bide bat eskaini dit. **Niko eta amona intergalaktikoa bildumaren bigarren alea da Piramide hegalarien kasua. Nora eramango gaituzte oraingoan protagonistek?** Nikok eta amona Gregorik Arezabal planeta bisitatuko dute bigarren abentura honetan. Arezabal planeta horrek seguraski antzinako Egiptoko zibilizazioa ekarriko digu gogora, baina ez dauka horrekin zerikusirik, ezta pentsatu ere. Gauza da gure protagonistak bertan bizi den kakalardo zibilizazioaren oinordetza salbatzen saiatu beharko direla.

Eta gu agente intergalaktiko.

Bilduma honen helburu nagusia umei irakurketaz gozaztea da. Hori lortzeko, zer hoberik haiek agente intergalaktiko bihurtzea baino? Horretarako, Niko eta amona Gregoriren abentura bakoitzak familia artean edo lagu-



PIRAMIDE HEGALARIEN KASUA
Abel Amutxategi
EREIN

nekin egiteko aproposa den esperimentu edo eskulanean bat ere badakar berarekin, irakurlea agente intergalaktiko peto-petoea bihurtu dadin. Lehenengo abenturaren ostean, adibidez, bizkotxo eder bat prestatu genuen.

Irakurlearekin exijentea da bilduma?

Irakurlearen irudimenari deitu nahi dio batez ere liburu bilduma honek. Nikok berak kontatzen dizkio bere abenturak irakurleari, lagun min batekin solasean ariko balitz bezala, eta esaldi laburrak eta onomatopeiak erabiltzen ditu, batez ere, erritimoa biziagotzeko. Haurrek horretaz gozatzea espero dut.

ANA ABARISKETA
Kazetaria

Elkarrizketa osoa:
https://labur.eus/Abel_Amutxategi



FASHION
Maribel Aiertza
ELKAR

Maddi desagertu egin da eskolakideekin eginiko irteera batean dagoela, arrastorik utzi gabe. Ingurukoek ez dute esaten jakingo desagertzea edo ihesa izan den. Ertzaintzari deitu eta ikerketa-lanak hasiko dira. Desagerpena ihesa izan da, ordea, sarean ezagutu duen gizon gazte batekin ospa egin du Maddik, sinetsita baitago haren ondoan bere bizitzako ametsa beteko duela: jantzi-diseinatzaile bihurtu, jakin gabe, maitasunaren moztarropen ezkatzen den amaraun batean dagoela harrapatuta, bere bizitzako ametsa betetzear dagoela pentsatzen ari den bitartean. Aurki bihurtuko zaio ametsa amesgaizto. Harrapatuta ikusiko du bere burua, beste emakume batzuekin batera, jantziak faltsifikatzen dituzten lantegi batean.

Liburua hiru ataletan dago banatuta. Lehenengoan, irakurleak protagonistaren etxekoan, lagunena eta eza-

FASHION


Modaren mundu liluragarriaren atzean ezkatzen diren bidegabekeriaren eta izugarrikeriaren lekukotza jasotzen du istorio honek. Misteriozko trama baten itxura eman dio idazleak, atalez atal irakurlearen jakin-mina sustatuz, azkeneko orrialdera iritsi arte.

gunen ikuspegitik ezagutu du gertatutakoa. Nork bere bertsioa ekarriko du, gertaeraren inguruko usteen eta espekulazioen berri emanez. Bigarren atalean, berriz, desagertzearen muinean kokatuko da irakurlea, protagonistak erdigunean jarriz, Ertzaintzaren peskizen hariari jarraituz. Hirugarren atalean, azkenik, hainbat hari mataza askatu eta irtenbidea topatuko du protagonistak, eta berarekin batera irakurleak.

Modaren mundu liluragarriaren atzean ezkatzen diren bidegabekeriaren, maitasun toxikoaren eta sarean eragin zitalen erakusgarri da ezin hobe idatzi eta kontatutako liburu hau. Protagonistak ahotsa ematen die gazteen artean nahi baino ohikoagoak diren egoerei eta bizipenei. Irakurle asko identifikatuko dira Maddiren ametsekin, gatazkekin, endredoekin...

MIREN MARTINEZ
Kazetaria

**EL DARK ROMANCE
QUE REINVENTA
LA MITOLOGÍA VASCA**



MONTENA

18. ekar

ilustrazio eta ipuin lehiaketa



SARI BANAKETA

Maiatzaren 16an egin genuen 18. ekar Ilustrazio eta Ipuin lehiaketako sari banaketa ekitaldia, Donostiako Alde Zaharreko ekar liburu-dendan. Horrelakoetan ohi den bezala, liburu-dendan azaldu ziren edizio honetako saritu gehien-gehienak, senitartekoak lagun hartuta. Hasieratik bertatik pozak ekitaldia alaitu zuen, eta giro bikaina erabat nagusitu zen.

Aurtengoan ere, partaidetza datuak zoragarriak izan dira. Azken urteetan bezala, 10.000 lagunetik gora animatu zarete zuen sormena gurekin partekatuz. Zerbaitara ekarrita, honelakoxea izan da parte hartzea: 3.000 ipuin baino gehiago, 5.000 ilustrazio baino gehiago eta 2.000 komikitik gertu jaso ditugu. Benetan, txalotzekoa da zuen inplikazioa!



TU AGENDA, TU HISTORIA | AGENDAS ESCOLARES 2026 - 2027





Saria lehenengoak jasotzen Jesus Mari Olaizola Txilikuren *Tapiz berria* ipuina ilustratu zuten umeak izan ziren:

ILUSTRAZIOA (A MAILA)

1. saria **Aner Lertxundi Herce.** Hautzaro Ikastola (Oiartzun)
2. saria **June Perez Rodanes.** Gainzuri Ikastetxea (Urretxu)

ILUSTRAZIOA (B MAILA)

1. saria **Jone Apalauza Estepa.** San Fermin Ikastola (Zizur Txikia)
2. saria **Maren Elordui Loizaga.** Zipiriñe HLHI (Sopela)

ILUSTRAZIOA (C MAILA)

1. saria **Haitz Olano Zubeltzu.** Langile Ikastola (Hernani)
2. saria **Iraide Aguirre Ancin.** Sanduzelai IP (Iruñea)



Azkenik, urtero bezala leihaketa honetan kolaboratu duten **Laboral Kutxa** eta **Irrien Lagunak**-ek emandako sariak banatu genituen. Hauek zozketa bidez aukeratzen dira, parte-hartzea eskertzeko asmoz:

IRRIEN LAGUNAK

Harpidetza

Leire Airas Fernandez. Sasoeta-Zumaburu (Lasarte)

Luka Gonzalez. Axular Lizeoa (Donostia)

Maddi Irueta. Izarraizpe Ikastola Publikoa (Azpeitia)

Sari berezia

Laia Mendizabal Tobalina. Talaia Ikastola (Hondarribia)



Ondoren, **Iñaki Holgado**k sortutako ilustrazioarekin ipuina idatzitakoek hartu zuten saria:

IPUINA (D MAILA)

1. saria **Oraien Contreras.** Bihotz Gaztea Ikastola (Santurtzi)
2. saria **Uxue Arrillaga Zatica.** Lekeitioko Herri Eskola (Lekeitio)

IPUINA (E MAILA)

1. saria **Maddi Laguna Arteaga.** Ander Deuna Ikastola (Ugeraga)
2. saria **Nora Escudero Mujika.** Haztegi Ikastola (Legazpi)



Kategorietako sariekin amaitzeko, komikietako sarien irabazleak ondo hauek izan ziren:

KOMIKIA (F MAILA)

1. saria **Beñat Rubial Elias.** Urretxu-Zumarraga Ikastola (Urretxu)
2. saria **Izei Gallastegi Molero.** Durango BHI (Elorrio)



LABORAL KUTXA

June Imaz Lizarraga. San Donato Herri Eskola (Etxarri-Aranatz)



Ainhoa Suberbiola Sarria. Argia Ikastola (Fontellas)

Ane Refoyo. Araiako Etxaurren Ikastola (Aiara)

lonely planet

TU VIAJE
EMPIEZA AQUÍ

Encuentra la mejor guía
para tus vacaciones





PINTTO. ERRITMO LATINO!
Magali Le Huche
TTARTTALO



GORA, GORA ETA GORA
Émile Jadoul
PAMIELA/KALANDRAKA

Aurten, Pinttok bidaia luze bat egin nahi du lagunekin Latinoamerikan zehar; bidaia zoro samarra, paisaia ederrak... eta dantzatzeko gogoia ematen duten doinuak!

Tipi tapa, untxitxoia doa lehenik gora, gora eta gora. Ttapa ttapa, krokodilo ttipia atzetik gora, gora eta gora. Dinbi danba, elefante handia ere gora, gora eta gora. Denak gora, gora eta gora, baina, nora ote doaz?



EKAITZ-LAINOA
Frances Stickley
TTARTTALO

Goiz eguzkitsu batean, Hartzek, esnatzarekin batera, ekaitz-laino bat aurkitu du bere buru gainean. Bat-batean, zoriontsu egun ohi zuten gauzek jada ez dute zoriontsu egiten.



LA GRAN AVENTURA JAMÁS CONTADA
Loes Riphagen
KÓKINOS

El día en que alguien levanta la piedra bajo la que viven, la tranquila vida de nuestros protagonistas se ve bruscamente interrumpida. ¡Se han quedado sin hogar! Por suerte, Gusano sabe dónde pueden ir.



EL CANGREJO QUE VIÑO A CENAR
Steve Smallman
BEASCOA

Estofado, Lobo y Tortilla han ido a pasar unos días a una cabaña en la orilla del mar. La playa es genial y el mar es muy divertido. De repente, Estofado encuentra una piedrecita que sale corriendo. ¡Es un cangrejo!




ASKO MAITE DUT NIRE BURUA
Lucía Serrano
MEZULARI

Geure gorputzari zuzentzen diogun begirada aldatzeko gonbita da liburu hau. Hari maitasunez begiratzen ikas genezake. Eta norbere buruari maitasunez begiratzen jakitea superbotea da.




LA BRIGADA FELINA. LOS GUARDIANES DE LA ISLA BRUMOSA
Susanna Isern
BEASCOA

La duquesa Zafira Garra Real, tigresa millonaria, descubre que un rubí legendario de su familia ha sido robado y escondido en una isla remota. Decidida a recuperarlo, convoca a la Brigada Felina.




LEHOIKUMEA
Jacques Prévert
PAMIELA/
KALANDRAKA

Kontakizun maitagarri eta konprometitua, Jacques Prévertrek maisutasunez idatzia eta Ylla argazkilari handiaren begirada paregabeak atondua. Piztien Etxean, lehoikumeak oihana du amets, amak askotan hitz egin baitio hartaz.




ROB ETA OT. LAGUN BEREZIA
Jaume Copons
MEZULARI

Umak Robi eta Oti azalduko die txakur guztiak lau hanka, buztana eta belarriak dauzkatela. Geroago, bi robotek sagu bat ikusi, eta txakurra dela pentsatuko dute. Nahasmen ederra!



KATTA 30. SUPERHEROIAK
Miren Agur Meabe
ELKAR

Katta eta lagunak superheroi bihurtu dira. Bakoitzak bere superbotea erabiliko du hondartzan daudenei laguntzeko, era batera edo bestera.



TRIKU ETA KIÑO
Iñigo Astiz
PAMIELA

Triku dantzaldi batera gonbidatu dute, baina ez daki dantzatzeko, eta oso kezkatuta dabil horregatik. Laguntzeko, Kiñoek entsegu moduko bat antolatuko dio etxean, baina, pixkanaka, lagunak gerturatzeko hasiko dira, eta...



NOLA EGITEN DUTE LO ANIMALIEK?
Irati Diez Virto
SUA EDIZIOAK

Animalia guztiok egiten ote dugu lo? Liburu honek, loaren bidez, animalia ikusgarriak eza-gutjera eramango zaitu, eta jada ezagutzen zenituen beste batzuk mirestera. Has gaitetzen bada, eta ez lorik hartu!



LORATEGIKO IRATXOA
Pello Añorga
ELKAR

Bakartxori birziklapena zer den ikasteko tenorea iritsi zaio eskolan. Etxerakoan lorategian, belar gainean oinutsik dabilela, txintxarri baten soinua entzun du, barre batzuekin batera. Gizon txiki-txiki bat ikusi du orduan: Iratxo da.



ANIMALIEN KOREOGRAFIAK
Núria Solsona
TTARTTALO

Naturan, taldean mugitzen dira animalia asko, koreografia sekretu bati jarraituko baliote bezala. Airean, uretan edo lehorrean, animaliek mugimendu zehatz bezain harrigarriak egiten dituzte.

+8



LA TERRIBLE ADELÈ EXTRA 2. EL CUMPLEAÑOS DE JADE
Mr Tan
KÓMIKIDS

¡En el patio del colegio reina la euforia desde hace días! Jade ha decidido organizar la fiesta de cumpleaños más increíble que se haya visto jamás. Pero la muy pesada quiere aprovechar la ocasión para ajustar cuentas.



FIESTA DE FIN DE CURSO
Emma Steinkellner
MAEVA YOUNG

Cuando omiten su nombre en la ceremonia de graduación, Rose decide que ya está harta de ser invisible y lo va a demostrar en la fiesta en la piscina del niño impopular, Dustin, a la que todo el mundo va.



SIRA 5. HERENSUGEAREN ITZALA
Ibon Martín
TRAVELBUG

Aralar mendilerora egin behar genuen txango dibertigarria gure misiorik arrisksuena bihurtu da. Miss Spoon desagertu egin da... eta badi-rudi Dama Iluna dagoela guztiaren atzean.



SEMAFORO DOMATZAILEA
Aintzane Usandizaga
TXALAPARTA

Egun batetik bestera, ziatika epidemia zabaldu da Xirriparten, eta, ondorioz, oker ibiltzen hasi dira herriko heldu gehienak. Sara konturatuko da semaforo okerre badutela zerikusirik helduen portaera bitxiarekin.

+10



EIRE MOON. AZKEN FIARDOA
Lur Gallastegi
ALAI

2100. urtea da eta lur planeta ia sutsutu du gizakiak. Eire Moon eta lagunak beren eskoletatik kaleratu dituzte, arazotsuak zirelako. Denak Ortzardar izeneko eskolan bildu dituzte.



AKELARREAN HARRAPATUTA
Esti Vivanco
ELKAR

Azkañeko atsua kanta herrikoiak ezkututzen duen kontakizunaren laztasunak guztiz jota utzi du Adur Larralde. Kantaren magia ikastetxean ezarri eta protagonistek Pierre de Lancre epaile ankerraren madarikazioari aurre egin beharko diote.



EL CABALLERO Y LA POLILLA
Rachel Gillig
HIDRA

La autora superventas Rachel Gillig nos transporta a un nuevo mundo oscuro en el que una joven profetisa debe emprender una arriesgada aventura acompañada del único caballero cuyo futuro no puede ver.



FLOR DE SANGRE
Nerea Llanes
CROSSBOOKS

Tras un incidente que la obliga a abandonar su antiguo instituto, Ethel Ashbourne se muda a Ebonwick, el hermético pueblo donde viven su abuela y sus tías. Mientras intenta encajar en su nuevo entorno, conoce a Nox Harker.

+12



CULPA VUESTRA (CULPABLES 4)
Mercedes Ron
MONTENA

La llegada del pequeño Andy no ha traído solo amor infinito si no también una metamorfosis que asusta. Ha dinamitado el delicado equilibrio que sostenían a base de orgullo, deseo y cicatrices.



ODOL ILARGIAREN ALABA
Kepa Iribar
EREIN

16 urteko neskatoa da Liv. Zoriontsu bizi da familiarekin Modron basoan. Bertako zuhaitzak ditu babesgune, eta handik kanpoko arazoak arrotz zaizkio. Baina gau batean, arazo horiek etxeko atariraino iritsi zaizkio.



UN AMIGO GRATIS
Inma Rubiales
PLANETA

Hay muchas cosas que Nash odia de sí mismo. La primera es su timidez. La segunda es que, debido a su altura, le cuesta especialmente pasar desapercibido. Si fuera invisible, su vida en el instituto no le parecería un infierno.



RIFTBORNE
Parker Lennox / Bree Greenwch
ALFAGUARA

Décadas después de que una rebelión arrasara la isla de Sídhe, Fia Riftborne ha aprendido tres lecciones esenciales para sobrevivir: mantener la cabeza baja, no llamar la atención y evitar a toda costa a la Guardia de Sídhe.

DESTROZA ESTE VERANO
Keri Smith

PANTALLAS OFF DIVERSION ON

DESTROZA ESTE DIARIO
Keri Smith

DESTROZA ESTE DIARIO
Keri Smith

DESTROZA ESTE DIARIO ¡A LO GRANDE!
Keri Smith

PAIDÓS


NOBEDADEAK

liburuak



ZURE ARNASA ZAITZEXO
Nerea Balda
EREIN

Ramiro Pinilla lehiaketako irabazlea izan da beste behin Nerea Balda. Ama-alaba harremana oso modu naturalean eta sinesgarrian deskribatzen du. Horretaz gain, protagonistak Alizerekin duen harremana zirraragarria da, tentsio handikoa.



KANTU LEUNA
Leila Slimani
ALBERDANIA

Paul eta Myriam haurtzain bila hasi eta Louise hautatu dute. Mila eta Adamekin duen aisetasunak loriatzen ditu, eta etxean egiten duen lana gero eta ezinbestekoagoa zaie. Emeki-emeki, elkarrekiko menpekotasunaren zepoan sartu dira.



CHICAGO
Aitziber Etxebarria
EREIN

1975ean gaude. Zientzialaria da Elisa. Ama eta emazte soil izatera mugatzen duen gizarte itogarri batetik ihesi, Donostia eta familia utzi eta Chicagora doa. Liburu hau *Olivetti* nobelaren jarraipena da.



BIHOTZEAN NAPALMA
Pol Guasch
TXALAPARTA

Etorkizunetik asko eta iraganetik beste horrenbeste duen distopia horretan, eremu geografiko anbiguoan, bi mutil gazteren harremana izango da istorioren ardatza.




ARGAZKIAREN ERABILERA
Annie Ernaux / Marc Marie
KATAKRAK

Annie Ernaux eta Marc Marie maitaleak izan ziren. Garai hartan bularreko minbizia izan zuen Ernauxek. Maitasun gauen osteko biharamuneko gelari argazkia egin zion Marc Mariek eta, gerora, iluntzean gertatutakoa idatzi zuten.



LUR ARROTZAK
Amaia Lasa
EREIN

Bilduma honek itsasoaren sakonetik gizartearen zaurietaraino hedatzen den ahots poetikoa eskaintzen du. Poemak bidaia dira: erbesteak, memoria, identitatea, mina eta itxaropena gurutzatzen dituzten paisaia fisiko eta emozioaletan barrena.



SASI ARTEKO SUGARRAK
Sebastian Gartzia Trujillo
BALEA ZURIA

Poema liburu honetako izenburuko sasia giro korapilatsu bezain misterioitsuari dagokio, eta sugarra, berriz, poeta honi barnetik sortzen zaizkion kezka eta minei, maitasun zein erotismoari eta baita moldatu duen eskal iruditeriari ere.




DEIADARRAREN ANTOLOGIA BAT
Rakek Pardo
ALBERDANIA

Bilduma honek poesia garaikidearen mugetan barrena bidaia proposatzen du, denboraren, entzumenaren eta pentsamenduaren arteko harremanak arakatzu.

25 años en tu bolsillo

CELEBRANDO LAS MEJORES HISTORIAS




DENBORAREN ESKU URDINAK
Peio Iturralde
SUSA

Biribiltasunik bilatzen ez duen ahots bat dago Peio Iturralderen lehen poema liburuan. Mezuak narrastuagatik bertsoak argitsu nahiko litzukeenak paratu; mundua marra artera ekarri.



EUSKAL ERREPUBLIKARANTZ
Batzuk
TXALAPARTA

Liburu honek eztabaida hauspotu nahi du: Euskal Herri osoko alor sozialeko, akademiako zein sindikalgintzako egileak elkartu ditu egungo egoeraren azterketa egin, eta Euskal Errepublika aktibatzeko gakoak mahai gainean jartzeko.



ZAZPIGARREN GIZONA
John Berger / Jean Mohr
KATAKRAK

Zergatik alde egingo du migranteak bere etxetik? Zergatik da hain nekeza langile migranteek eta natiboei politikoki bat egitea? Migranteen aho-tsa, kondizioa eta irudia dakartza Bergerrek Jean Mohr argazkilariarekin elkarlanean.



UDA BATEZ MONTAIGNEREKIN
Antoine Compagnon
ALBERDANIA

Klasiko bat, gaurko erritimoan berridatza: jakin-mina pizten duen, pentsarazten duen eta, batez ere, irakurtzen jarraitzeko gogo sortzen duen liburua.



EUSKAL KLASIKOEN BILA
Jon Casenave
EUSKALZAINDIA

Liburu honetan euskal literaturaren klasikoak dira aipagai. Baina, zer da euskal klasiko bat gaurko ikuspuntutik? Gure memorian eta euskal kulturaren bizirik gelditu diren lehengo obra nagusi eta idazle ezagunak ditugu «klasikoak» deitzen.



HERRIGINTZAK MEREZI DU
Tasio Erkizia
TXALAPARTA

Euskal Herriko herri mugimenduaren kartografia da liburu hau. Historia ezkatuta, egilearen hitzetan, gatazka baten adierazpen biolentoen atzean interesatuki isildua, eta, halere, azken hamarkadak ulertzeko ezinbestekoa.



MATEMATIKA, HIZKUNTZA ETA GENEROA GURUTZATZEN DIREN LEKUAK
Uzuri Albizu
EHU

Liburu honek matematika, hezkuntza eta genero non eta nola gurutzatzen diren aztertzen du, autoreak ikasleekin partekatzen duen matematika-ikasgela hartuta agertoki nagusizat.




ZUHAITZAK ETA ARBOLAK
Batzuk
ARGIA

Gure kulturaren oinarri dira zuhaitzak. Belaunaldiz belaunaldi jaso dugun ondarea bildu dute liburu honetan Jakoba Errekondo, Markel Arriolabengoa eta Iñaki Etxebeite adituek, jakintza horri eutsi diezaiozun, eta ondorengoek ere ezagutu dezaten.



ATEGORRIETAN FISTERRA
Batzuk
ARGIA

Guardia Zibilak Donostiako Ategorrietan zazpi langile hil eta dozenaka manifestari zauritu zituen tiroka 1931ko maiatzaren 27an. XX. mendeko langileen aurkako sarraskirik handiena izan da Euskal Herrian, eta, hala ere, gaur egun inor gutxik gogoratzen du.



METALAREN GUSTUA
Bruno Duhamel
HARRIET

Eskualdean altxorak ez dira nahi beste. Ezta lanak ere. Leok ez du ez bata ez bestea. Hala ere, ez da saiatu ez delako. Arazoa metodoa da. Iman bidezko arrantza inoiz ez da izan lana topatzeko modurik onena.



ITSASOAREN AHUTZAK
Jon Alonso / Adur
ELKAR

Historia honek egiazko kasu batean du oinarria: Jose Migel Etxeberria (Naparra, Bakunin) errefuxiatu iruñarraren desagerketa. Komikia, ordea, fikzioa da hasi eta buka, eta fikzioak irakurtzeko botaurrekoekin irakurri behar da.



DEIADARRA
Aritz Ibarra
NABARRALDE

Baskonia, historia zirrargarri eta sakoneko zaurit beteriko lurraldea. Bere mendien artetik, oihi atsekabetu baten oihartzuna entzun daiteke. Belaunaldiz belaunaldi, apurka-apurka, itzaltzen doan arrangura bihotz-erdiragarria.

BOOKLOVERS
CLUB DE AMANTES DE LOS LIBROS

Planeta de Libros


NOVEDADES

libros



MATAR A UN RICO
Sandrone Dazieri
ALFAGUARA

Un thriller negro donde un inspector regresa a un lugar marcado por la muerte para enfrentarse a una investigación que mezcla ciencia, psicología y leyendas hasta un final impactante.



CIUDAD DE SAL
David B. Gil
SUMA DE LETRAS

Un joven inspector aterriza en Homicidios para reemplazar a una veterana que se jubila. Sin embargo, sus caminos quedarán entrelazados de forma inquietante cuando decidan investigar una serie de casos que fueron archivados como suicidios.




EL CLUB DE LAS INDOMABLES
Kathryn Stockett
PLANETA

Misisipi, 1933. Meg, de once años, vive en un orfanato desde que su madre desapareció. Con el paso del tiempo, la esperanza de que vuelva a buscarla se desvanece, y Meg acaba adoptada por una familia que parece encarnar el sueño perfecto.



LA VÍSPERA
Manuel Jabois
ALFAGUARA

En esta perturbadora historia que transcurre en un solo día, una protagonista inolvidable, Amalia Constenla, mueve los límites morales y arrastra al lector a un viaje de sacrificio, culpa y redención.



LA CÁMARA DE LAS MARAVILLAS
María Oruña
PLAZA & JANÉS

Una intriga irresistible, unos personajes inolvidables y una trama en torno a los misterios de la Cámara de las Maravillas, donde las obras de arte más bellas y sofisticadas conviven con el robo, la traición y el asesinato.




LA ENFERMERA
Martín Torres
N DE NOVELA

El Hospital Universitario Donostia se ha convertido en el epicentro de una serie de muertes imposibles. La sala de urgencias es un caos: hay víctimas fatales de un accidente de tráfico, un cadáver mutilado y una paciente que le grita al diablo.



EL SÓTANO
Roberto Leal
ESPASA

Tras convertirse en sospechoso de la desaparición de su pareja, Samuel ve cómo su vida se desmorona. Años después, unas misteriosas cartas le dejan entrever una vida que creía inalcanzable. Entonces aparece ella.



UNA VIDA LEJANA
M.L. Stedman
SALAMANDRA

Australia, 1958. Durante generaciones, los MacBride han vivido en una inmensa y remota granja de ovejas. Un día, el patriarca Phil MacBride da un volantazo para esquivar a un canguro. En segundos, la vida de la familia se hace añicos.



LA SOCIEDAD DE LOS OBJETOS EXTRAORDINARIOS
Gareth Brown
MAEVA

El mundo de los objetos extraordinarios ha permanecido en silencio durante décadas, pero los miembros de la sociedad que se encarga de proteger estos artículos mágicos se han mantenido alerta todo este tiempo.



CAMBIAR EL AGUA DE LAS FLORES
Valérie Perrin
DUOMO

Violette Toussaint es la guarda del cementerio de un pueblo de Borgoña. Un día un policía de Marsella se presenta con una petición: su madre, recientemente fallecida, quería ser enterrada en la tumba de un hombre a quien él no conoce.



MENTIRAS (SERIE MINDF*CK 4)
S.T. Abby
CONTRALUZ

Siempre me he enorgullecido de ser imposible de engañar. Soy un experto detectando mentiras. Nunca creí que el amor pudiera cegarme... hasta que llegó Lana. La cuarta entrega de la saga más viral, más adictiva y peligrosa jamás vista.



RÍETE DE LAS BODAS
Megan Maxwell
ESPASA

Alma está en la flor de la vida: madurita, divorciada y feliz. Es la dueña, junto a su amiga Nuria, de una bonita tienda de vestidos de novia. Tienen claro que ellas, por motivos personales, nunca pasarán por el altar.



A LA SOMBRA DEL TEMPLO
Toti Martínez de Lezea
EREIN

En 1522 Adriano Florencio Boeyens, Adriano de Utrecht, gran inquisidor y corregente de los reinos de Castilla, sería elegido Papa, con el nombre de Adriano VI. La noticia de su nombramiento le llegó hallándose en Vitoria.



YESTERYEAR
Caro Claire Burke
ADN

Natalie Heller Mills es la perfecta mujer americana tradicional: esposa, madre de seis hijos y reina de las redes sociales, donde millones de seguidores consumen fascinados su idílica vida de "tradwife".



TODAS LAS HISTORIAS LLEVAN TU NOMBRE
Andrea Longarela
CROSSBOOKS

No hay nada que a Lucy Dallas le guste más que los veranos en Mendocino. Allí, el tiempo es elástico y el mañana no existe. Allí, la realidad es perfecta. Hasta que un día las cosas cambian.




SALADO, ESPECIADO Y ALGO ENCANTADOR
Cynthia Timoti
KIWI

Ella es salada, él es picante: esta relación falsa no admite azúcar... aunque podría ser más dulce de lo esperado. Cansada del control familiar por su diabetes, Ellie Pang huye cuando una humillante propuesta de matrimonio se vuelve viral.



PINTXOS
Richard Martínez /
Edume Zabala
ALAI

La Parte Vieja de la capital donostiarra está repleta de historia y de bares de pintxos.



VITA
Xabi Uribe-Etxebarria
DEBATE

Este libro explora, de una manera ágil, una de las preguntas más cruciales: ¿qué significa realmente estar vivo? Desde el origen de la vida hasta la posibilidad de nuevas formas de existencia, artificiales, híbridas o aún inimaginables.




La respuesta
Juan Luis Arsuaga
DESTINO

En este libro, *Juan Luis Arsuaga*, después de décadas dedicadas a estudiar y descifrar nuestros orígenes, ofrece una mirada personal y rigurosa sobre lo que la evolución nos dice acerca de quiénes somos.




CLANDESTINOS
Dolores Marín Silvestre
KATAKRAK

Historia de quienes perdieron la guerra en 1939 pero siguieron luchando con las armas en la mano. Dolores Marín da forma a la gran crónica de la resistencia libertaria durante las primeras décadas del franquismo.



LA CONQUISTA DE LA ERÓTICA
Carmen Bohórquez
TXALAPARTA

Este libro analiza cómo la conquista de América impuso una violencia erótica y simbólica que convirtió a las mujeres indígenas en objeto de sometimiento, al tiempo que construía discursos destinados a justificar esa violencia.



PATRIOTAS Y BASTARDOS
Aurora Madaula
EREIN

Exploración de la trayectoria del nacionalismo vasco en el contexto del franquismo y *la política internacional*, a través de la II Guerra Mundial, el Congreso Mundial Vasco y los enfrentamientos ideológicos con otras facciones como ETA.



LEQUERICA. DE BILBAO A NUEVA YORK PASANDO POR VICHY
José Ignacio Arechalde
PAMIELA

José Félix Lequerica (1890-1963) fue alcalde de Bilbao, embajador en París y Vichy, ministro de asuntos exteriores, embajador en Washington y representante de la España franquista en las Naciones Unidas.



175 HISTORIAS DE LAS CAJAS DE AHORRO VASCAS
Iker Arteagabeitia
IKER ARTEAGABEITIA

Estas 175 historias muestran cómo, durante casi dos siglos, las cajas contribuyeron a construir bienestar, cultura, vivienda, educación y progreso colectivo. Además, invitan a pensar qué ideas de aquel modelo valen para el futuro.



EL CORRALITO PROGRE
AAV
KATAKRAK

Este libro analiza desde una perspectiva crítica la gestión económica y política de Navarra en el periodo 2015-2025, periodo en el que la derecha ha quedado fuera del gobierno foral.



DORMIR CUANDO NO PUEDES DORMIR
Rafael Santandreu
GRIJALBO

En este libro revolucionario, Rafael Santandreu revela que la mayoría de los casos de insomnio son psicológicos y tienen solución. En sus páginas aprenderás cómo reprogramar tu cerebro para dormir profundamente.

LECTURAS GRADUADAS EN EUSKERA

policiacas, románticas, de misterio, relatos breves...



PUZZLE BAT OSATZEKO MODUAK
Andoni Tolosa
Mattin



elkar [_Hizkuntzak](http://www.hizkuntzak.com)
www.elkarhizkuntzak.eus

ARIAN
IRAKURGAI
MAILAKATUAK

NOBEDADEAK

musika



DONDE SE HABLE (LP)
La Polla Records
ELKAR

DESCONTA
%10

Grabado en 1988, con hilo conductor de animales para las canciones, constata la llegada del disco conceptual al punk vasco. Obra de madurez, constituye un disco muy completo.



BAJO PRESIÓN (LP)
La Polla Records
ELKAR

DESCONTA
%10

Editado originalmente en 1994, sorprende cómo, casi diez años después de su debut, La Polla Records eran capaces de seguir haciendo discos de semejante intensidad.



EGUBERRI UMAMA
Juanxo Zeberio
JUANTXO ZEBERIO

DESCONTA
%10

Euskal Herriak altxor amaigabea du Eguberri kantuei dagokienez. Disko honetan, Juanxo Zeberio Etxetxiak txiki-txikitatik etxean eta kalean entzun eta abestu izan ditugun gabon kanta kuttunen aukeraketa bat egin du, eta bere erara moldatu.



GEZURRARI ZOR
Mikel Markez
MIKEL MARKEZ


DESCONTA
%10

Disko honek bederatzikantuk biltzen ditu, bakoitza bertsoari batek idatzia, zenbait gairen inguruko hausnarketa proposatuz, satiratik ironiara, egia eta gezurra nahastuz. Mikel Markezek bederatzik bertso doinu sortu ditu.



ONIRIA POPULAR (DIGIPACK)
Xoel López
UNIVERSAL MUSIC

El nuevo disco de Xoel López es fresco y reflexivo, íntimo y colectivo. Sus letras y melodías sueñan y vuelan, pero mantienen las raíces en la tierra, dando forma a un pop actual que dialoga con lo tradicional y lo folclórico.



THE ROMANTIC
Bruno Mars
WARNER MUSIC

Cuarto álbum del cantautor estadounidense Bruno Mars. Como anuncia el título, el disco conforma un conjunto elegante de nueve canciones de amor finamente elaboradas.



SOLO A SOLAS CONMIGO
Víctor Manuel
ALTA FONTE

El nuevo álbum de Víctor Manuel es una colección de canciones que hablan, por supuesto, de amor, pero también de esperanza, de no dejarse arrastrar por intoxicaciones, de tratar de ser uno mismo, de la pereza, del desánimo...



NO LES INTERESA
Boikot
MALDITO RECORDS

El nuevo trabajo de Boikot condensa toda una serie de cuestiones que nos atañen directamente como sociedad. La banda, a lo largo de quince enormes y raudas canciones.

DVD-AK



LOS DOMINGOS
Alauda Ruiz de Azúa
KARMA FILMS

Ainara, una joven idealista y brillante de 17 años, ha de decidir qué carrera universitaria estudiará. Sin embargo, la joven manifiesta que se siente cada vez más cerca de Dios y que se plantea abrazar la vida de monja de clausura.




ZOOTRÓPOLIS 2
Jared Bush
DIVISA RED

Los policías novatos Judy Hopps y Nick Wilde se ven envueltos en un gran misterio cuando Gary Serpiéntez llega a Zootrópolis y pone patas arriba la metrópolis de los mamíferos.

FREIDA McFADDEN

EL FENÓMENO VIRAL DEL AÑO CON MÁS
DE 50.000.000 DE EJEMPLARES VENDIDOS

POR SOLO 10,95€



Penguin
Random House
Grupo Editorial

DEBOLSILLO

Badatoz Jolasak!

+3

Mahai jolas honek dibertsioa, ikasketa eta motrizitatea lantzen ditu. Koloretako dadoekin eta konfeti fitxekin umeeek jai ahaztezina antolatuko dute.

+5

Mahai-jolas honetan haurrek batuketak eta kenketak egin ahala piramideko sekretuak argitara aterako dituzte.

+6

Juego de mesa que, a través de dinámicas divertidas, fomenta la empatía infantil y ayuda a derribar prejuicios, ideal para crear entornos escolares más comprensivos y respetuosos.

+8

Sortu zure eskualdeko aintzirarik oparoena! Karta-jolas estrategiko eta dinamiko honetan zure auzokoekin indarrak batu beharko dituzu urmaelik biziena atontzeko.

+8

Has zaitez aventura bila zure pirata eskifaiarekin karta-jolas kooperatibo eta bizkor honetan. Uhartea aukeratu, erronkak egin eta aventura multzoko kartak gainditu... 5 minututan irabazteko!

+10

En *Back Stories: Sola bajo el Hielo*, vivirás una aventura cooperativa. ¿Estás listo para enfrentarte a los desafíos helados y escribir tu propia historia?

+12

Juego de cartas familiar que combina engaño sutil, faroleo y mímica. Todos los jugadores reciben la misma identidad, excepto el impostor, que tiene información limitada pero crucial.

DEBATE

RECETAS PARA GOZARLO CON TU FREIDORA DE AIRE

GOZA CON TU FREIDORA DE AIRE ESTA GRAN SELECCIÓN DE RECETAS

ORGANIZA LA COCINA DE TU CASA COMO LOS MEJORES CHEFS

PRÓLOGO DE MARTÍN BERRASATEGUI

DEBATE

El libro definitivo para sacar todo el partido a tu cocina con recetas fáciles, rápidas y deliciosas



Penguin Random House Grupo Editorial

www.penguinlibros.com

@PenguinLibros

IKASTURTE BERRIRAKO PREST!

Etxetik edo
liburu-dendan eskuratu
ikasturte berrirako
behar duzun guztia.

ekar



www.elkar.eus

elkar

UDA 2026
84. ZENBAKIA

www.elkar.eus



ZORI ONAK! 50 urte

Fermin
Calbeton

+

JAVIER LERÍN

CÍRCULO DE CENIZA, UN TREPIDANTE THRILLER INCENDIA NAVARRA

MANEL LOUREIRO

ANTES DE QUE TODO CAMBIE, UN CÓCTEL DE VENGANZA, ACCIÓN, ESPIONAJE, GEOPOLÍTICA Y DOLOR

IZEN PROPIOAK

OLATZ MITXELENA · MARKEL SANCHEZ · IONE GOROSTARZU · GORKA BEREZIARTUA · LUIS GARDE · ASEL LUZARRAGA · ABEL AMUTXATEGI · JON SARASUA · IKER ELORTZA · LAJA · IRATI JIMENEZ · ANTON OLARIAGA · MARI JOSE OLAZIREGI · ALBERTO MURO · GASTON

